

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 11 / 708. zenbakia



NORK ZUZENDUKO DU MONDRA?

ORAINGO ZUZENDARITZA TALDEAK DIMISIOA AURKEZTU DU;
PRESIDENTEAREKIN IZAN GARA BERBETAN

ORAIN ETA HEMEN: **HILERRIA/7** • KULTURA: **BADATOR KORRIKA/10**

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 11**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- ZAPATUA, 12**
Español. Araba etorb. 14 943 79 18 65
- DOMEKA, 13**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- ÁSTELEHENA, 14**
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30
- MARTITZENA, 15**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 16**
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUENA, 17**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUBAKOITZA, 18**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIEIXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHLTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua	Zapatua
19:00 (elebiduna)	19:00 (elebiduna)
Domeka	Domeka
09:00 (elebiduna)	10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (elebiduna)	11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)	12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Marinako eliza
Zapatua	Zapatua
19:00 (elebiduna)	19:00 (gaztelaniaz)
Domeka	Domeka
09:00 (euskaraz)	11:00 (gaztelaniaz)
10:00 (elebiduna)	
12:30 (elebiduna)	
19:00 (elebiduna)	San Isidro eliza
Uribarri parrokia	Zapatua
Zapatua	20:00 (euskaraz)
19:00 (elebiduna)	Santa Teresa eliza
Domeka	Domeka
11:30 (euskaraz)	12:30 (elebiduna)
12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

HARREMANEN BERBALDIA
Astelehenean, hilaren 14an, gobernuz kanpoko Harreman erakundeak berbaldia egingo du Monterronen, 19:00etan. Hizlariak Mundukideren truke programan esku hartu dute, eta Mexiko, Nikaragua, Kuba eta Hondurasko elkarte eta kooperatiben esperientziak kontatuko dituzte.

14. KORRIKA
Eguaztenean, hilaren 16an, helduko da Korrika Arrasatera. 20:00etan Kanpanzaren izango da, eta 20:30ean Arrasatera heltzea espero dute.

KANTABRIARA TXANGOA
Gazte txokoei Kantabriara txangoa egingo dute apirilaren 22tik 24ra bitartean. Arrasateko DBHko gazte guztiei egin diete gonbidapena. Egonaldia aterpetxe baten egingo dute, eta hainbat ekintza antolatuko dituzte. Interesatuak 75 euro ordaindu beharko dituzte.

CANDANCHURA IRTEERA
Datorren zapatuan, hilaren 19an, gazte txokoei Candanchura irteera egingo dute, eskiatzera. Interesatuak 50 euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko, jo gazte txokoetara edo Txatxilipurdira.

AEDrenAGENDA

14. KORRIKAREN LAGUNTZAILE EGITEKO AUKERA
Korrikaren laguntzaile izan gura duenak AEDra jo dezake. 12 euroren truke, Korrikari lagundu eta deskontuak izango ditu.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

**Folk 95
Asteburua
antolatu
zuten**

Arrasateko Bizz Ekoizpenak Folk 95 Asteburua antolatu zuen. Asteburu baten Ingalaterrako, Eskoziako eta Espainiako Estatuko hamar taldek kontzertuak egin zituzten Seber Altuben eta Musakolako kiroldegian. Maila handiko taldeek jo zuten. Argazkian, Liberty Cage talde ingelesa.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



lirain bihurtu.
— *Len potolua zan baiña ziero liraindduta dago.*

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Rock-and-rolla eta punk-rocka Jukeboxekin, eta Kiotoko Protokoloa Pello Zabalarekin

Disko berria kaleratu du oraintsu Jukebox talde arrasatearrak eta haren gainean gehiago jakiteko asmoarekin Brian gitarra jolearengana eta Aitor abeslariarengana jo dugu. **Asteko gainbegiratuan** berreskuratuko dugu elkarrizketa hori.

Horrekin batera, modan ipini diren *blog*-ak ere berbaigai izango ditugu, Goienako telematika saileko kazetari Mainer Arregirekin.

Eta zela ez, Martxoak 8aren errepaso egin guran, Garbiñe

Garmendia medikuarekin izan gara, ibarrean bizi diren emakume etorkinen gainean.

DATORREN ASTEAN, ZER
Korrika 14 datorren astean iritsiko denez gurerara, ezin bestela izan, eta gure irratiko protagonistetako bat izango dugu. Bestalde, orain dela 15 egun ekin genion Kiotoko Protokoloa ezagutzeari Pello Zabalarekin. Gai hori gehiago landuko dugu: herrialdeen betebeharrak, zaindu beharrekoak...

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 2	-6 °C
MAXIMOA Eguaztena, 2	11 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	97,9 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 2	11 °C -6 °C 3,4 l/m²
Eguena, 3	4 °C -1 °C 26,9 l/m²
Egubakoitza, 4	4 °C 0 °C 20,4 l/m²
Zapatua, 5	6 °C 0 °C 36,3 l/m²
Domeka, 6	7 °C 3 °C 10,3 l/m²
Astelehena, 7	5 °C 0 °C 0,6 l/m²
Martitena, 8	9 °C 0 °C - l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegirata:** Garbiñe Garmendia medikua; Jukebox taldeko Brian eta Aitor; Goienako telematikako kazetari Mainer Arregi; Saharako maratoian ibili diren Esteban Lazkano eta Imanol Pildain...
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegirata.**
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 **IGO AUTOBIUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landá).
Elkarrizketak.
Zozketak, e.a...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren tartea.**
Zoriontzeko eta zozketetan esku hartzeko, 943 71 17 31.
- 12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
- 14:00 **IGO AUTOBIUSERA! (errep.)**
- 17:00; 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Konpetitibuek izeteko neurrixek hartu biher diela esan barri dau Confebask-ek



MODESTO ZUFIRIA
Langillie



PABLO MAYOR
Langillie



ANTON ABARRATEGI
Langillie



SONIA RODRIGUEZ
Langillie



SONIA CANAS
Langillie



LEIRE DE PAZ
Langabie

Lelengo egin biherko leu-
kiena da lanerako baldin-
tzak hobetu, horreik ez die-
lako kontuen hartzen. Bes-
tela, sindikatuek alde
batetik, patronala beste-
tik... Konponbide gatxa!

Bakotzak bere aldera egi-
tten dau. Langilliek gerueu
eta lan gutxieu egin eta
gerueu eta gehixeu irebazi
gure dau, eta patronala bere
interesei begire dabil. Zelan
konpondu hori?

Patronalan eta sindikatuen
artien ados ipiñi biherko
die, zenbat ordu lan egin,
eta zenbat kobrau. Baiñe
oin momentuen ez dot uste
lan egitteko problemarik
dauenik.

Eta ze neurri? Horreik neu-
rrixok langillien kontra-
kuek badie, ez nau konfor-
me. Patronala irebazixei
begire dabil, eta ez jako
inporta langilliek zenbat
ordu egin biher dauen lan.

Ikusi egin biher zeintzuk
dien neurrixok. Kontue bada
lan gehixeu egittie eta diru
gutxieu irabaztie, ba... Ez
nau horren alde. 40 ordu lan
egittie ondo dau; akaso, 35
ordu egittie ez da posible.

Bistan dau kanpokuek fuer-
te datozela eta konpetiti-
buek izen biher doule. Bai-
ñe ikusi egin biherko litza-
ke zein dan egoerie, eta
ikusi patronalak be ze jar-
ten dauen bere partetik.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ZULOAK ERREPIDEAN Herritar batzuek aditzera eman
digute azken asteotan errepidean zulo asko egin direla, eta hainbat
kasutan arriskua dagoela. Nabarmendu dute Gipuzkoako Foruen pla-
zan eta Alfontso VIII.a kalean, esaterako, zulo itzelak daudela. Jakin
badakite horren errua elurak eta izotzak dutela, baina udal aginta-
riei eskatu diete arazo horri konponbidea emateko.

ASTEKODATUA

423.000

EURO BEHARKO DIRA UDAL ARTXIBOA BERRESKURATZEKO

Abuztuaren bukaeran jasandako
uholdearen ondorioz, udal artxi-
boa kaltetu egin zen. Material
hori guztia berreskuratzeko
lagun ugari ibili ziren lanean, eta
makinak behar izan zituzten.

BESTEKEESANA

“

Alde asko ditu
emakumearen
garapenak. Horieta
batzuk sindikatu eta
alderdi politikoei

dagozkie. Euskararen arloa da guk
gure gain hartu duguna. Hizkuntza
eta kultura ondorengoei ematean,
emakumeak indar handia du, seme-
alabak maitasunez zaindu eta
babestean, erabiltzen duen hizkuntza
umearen nortasunari itsatsita
geldituko zaiolako. Eta emakumeez
diogunak berdin-berdin balio du
gizonezkoentzat ere, horrela jarduten
dutenean. Ekin Emakumeak Elkartean
proiektu berritzailea dugu martxan.
Amaitu berria dugun 2000-2004
planaren itzalpean sortu dira famili
txokoaren planteamendua, talo
tailerrak, norbera babesteko
ikastaroa, etxeko lanak konpartitze-
ko sukaldaritza, eta beste batzuk”

EKIN EMAKUMEAK ELKARTEA
‘TOPABERRI’/05-03-01

HERRITARRENBERBAK/ Nerea Makazaga



Herritarren hitza

Herritarren hitza hitz
xumea da. Nire hitzek
orri honetan katea-
tuak izan arren, ez
diote berbaldi xume bat izateari
utziko. Biluztu egingo naiz, beti
ere lotsa apur batekin, lehenen-
go aldiz medikuarenean
biluzten dena letxe. Lotsatu
egiten naiz, biluztu
eta zuk jantzita
jarraitzen duzula
jakitean, hotz
hauetaz babes. Badu
zure begirada
babestuak, ordea,
zirrara ezezaguna
pizten didan zer edo
zer, inolaz ere
aldatuko ez nizukee-
na.

Ez dago inolako jakintza
zientifikoaren beharrik, hau
mugimenduan ari den itsason-
tzia dela ohartzeko. Uztarketa
bakoitza, portu fantasma bat da,
batzutan kokapen erreal bat
egokitzen diogun arren. Erlojuar-
ren orratzak, atzera zein
aurrera labandu daitezke;
aukiaren posizioa, paisaiak
determinatuko du, eta oraindik
ezin jakin zuk eta nik, zuk eta
hark, haiek... zein egutegitan
egingo dugun topo (egutegi

ezberdinak, inoiz elkarrekin
gurutzatzen baitira).

Denboraren garrantziak
eragin dezake gure harreman
honetan, baina egia da liburu
bera ez dugula inoiz berdin
irakurriko. Ezberdintasunik
txikienak irakurketa unean,
katean eragingo duen ezberdin-
tasuna suposatuko
digu, jasotze alda-
tuak besterik ez dira
izango zurea eta
nirea. Hortik hasita,
ezberdinak izango
dira gure iritziak,
gure usteak eta
ondorengoak. Aldiz,
ezberdintasun oro
antzekotasun izan
daiteke erabilitako

eskala edo neurtze sistemaren
arabera.

Ezberdintasunek bereizten
gaitzute eta berdintasunek batu.
Momentuaren berezitasunaren
arabera, sufritutakoaren joan
eta etorrietan, hamaika eskale-
tara egokitzen gara.

Eta nik, oraindik ez diot
puntua aurkitu eskalen kontu
honi. Testu honi ere, ezin
neurria aurkitu. Baina hitzek
uste baino gehiago pisatzen
digute.

“Ezberdintasunek
bereizten gaitzute
eta berdintasunek
batu. Momentuaren
arabera, hamaika
eskaletara
egokitzen gara”

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 6

GAZTEAK / 12

ZAHARRAK / 14

Ana Maria Briongos

Kataluniako Ana
Maria Briongos
idazle eta bidaiari
ezagunari elka-
rrizketa egin
diogu.

Magia ikasteko aukera

Hainbat mago
ezagunek magia
ikastaroa egingo
dute Aste Santu
ostean, Gazte
Sailaren eskutik.

Aldundiari bizkarra eman

Debagoieneko
erretiratuak
haserre daude
Aldundiarekin,
eta ez diote
lagunduko.

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Xabier Urtzelai
Ubane Madera

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amalia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuen

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Automobilismoaren gaineko masterra

Mondragon Unibertsitateak eta Epsilon Euskadik masterra abiatu dute automobilismoaren inguruan. Europan ez dago horrelakorik; hortaz, aitzindaria da. Guztira, 24 ingeniari izango dute master hori egiteko aukera, eta 1 Formulan erabiltzen dituzten autoekin egingo dituzte praktikak.

Epsilon Euskadi enpresak Azkoitian duen egoitzan emango dute masterra, eta, arduradunen esanetan, ez da batere erraza izango, asko ikasteaz gain, tailerrean ere ordu asko egin behar dituztelako.

Sexologiaren gaineko mahai-ingurua

Sexologia Zerbitzuak antolatuta, sexologia osasuntsuaren gaineko mahai-ingurua egin zuten joan den egunean. Asmoa zen gai hori bi ikuspuntutatik lantzea: sexologia eta ginekologia ikuspuntuetatik, hain zuzen. Elurraren eraginez, baina, Agurtzane Ormazza sexologia ezin izan zen etorri, eta Emiliano Lopez izan zen hizlaria.

Beste gauza batzuen artean, kontrazepzioaren, hilekoa eramangarriagoa egiteko teknika berrien eta sexu bidez transmititzen diren gaixotasunen gainean egin zuten berba. Sexualitate osasuntsua izatea guztion ardura izan behar balitz ere, egunean emakumeak bakarrik izan ziren berbaldian.

Ekodiseinu gela egingo dute MUn

Ihobe Sozietate Publikoak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mondragon Unibertsitateak 2020ra bitarteko hitzarmena sinatu dute, garapen iraunkorraren alde lan egiteko. Joan den egubakoitzean sinatu zuten hitzarmena, eta hitzarmen horrek, bere baitan, ekodiseinu gelaren proiektua jasotzen du. Ekodiseinua da produktu bat diseinatzerako orduan ingurumena kontuan izatea, eta lan horiek egiteko gela bat egokituko dute Garaia Berrikuntza Gunean.

**Igogailu publikoa egiteko eskaera**

Arrasateko Udala aztertzen dabil Hirurok enpresak Bizkaia etorbidean aparkalekuak egiteko aurkeztu duen proiektua. Aparkaleku horrek 200 automobilendako lekua izango du. Udalak, baina, aparkaleku horretan Bizkaia etorbidea eta Etxezapia kalea elkartuko dituen igogailua egiteko eskatu du. Arrasateko lehenengo igogailu publikoa izango litzateke.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Erretiratuen matxinada

Eguaztenean 14. Korrika Arrasatera helduko dela-eta, horren gainean idazteko asmoa neukan. Ez ditut Korrika asko bizi izan, hala suertatu zaidalako, baina orain dela bi urtekoa itzela izan zen. Aspaldiko partez egun argiz heldu zen Arrasatera, eta giroa eta parte-hartzea izugarrikoak izan ziren. Aurten egunaren bukaeran

igaroko da Arrasatetik, eta orain arte Korrika batzordeak egin duen lana, eta arrasatearrek ekimenari egin dioten harrera txalogarriak dira oso. Ia parekorik ez duen ekimena da hori, itzela!

Beste gai batek txunditu nau asteen. Gipuzkoako ahaldu nagusi Jose Juan Gonzalez de Txabarrik Gipuzkoako erretiratuei laguntza eskatu die. Abuz-

tuan Donostian Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketa egingo dute, eta erretiratuek laguntzea da bere asmoa.

Debagoieneko erretiratuek esan diote ez dutela laguntzarik emango. Ibarreko erretiratuek ez dute inolako deskonturik garraino publikoan, eta arazo hori konpontzeko eskaera egin zioten orain dela bi urte. Erantzunik jaso ez dutenez, halako erantzuna ematea erabaki dute.

ASTEKOIRUDIA



AMAGUIA LASAGARTE

MARTXOAREN 8A, BERTINTASUNAREN ALDEKO ALDARRIKAPENA

Martxoak zortzi egun bete ditu aste honetan. Hemen bertan eta nazioartean ere egun garrantzitsua da hori, askotan aldarrikatutako genero berdintasuna bermatzen ez delako. Horregatik, martitzenean Arrasaten, hainbat herritar kalera atera ziren manifestazioan. Horrez gain, Emakumeen Kon-

tseiluak, Udalaren laguntzarekin, egitarau zabal antolatu du, hilaren 18an bukatuko dena, hain zuzen ere. Hori baino gehiago, Udaleko emakume gaitako arduradunak azpimarratu zuen aldarrikapen hori egun batean kokatu beharrean, egunero egin behar dela. //B.

Pando Errotuloak

Gipuzkoa. etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

arbolapeta

arrasate

★

beinke

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Pizzak
- Oilaskoak eta paellak eramateko




LASAITU EDERRA: AMAITU DIRA DENDETAKO MERKEALDIK

Seguru komertzioetan lanean dabiltzanek lasaitu ederra hartuko dutela, horrenbeste buruhauste ematen dizkieten merkealdiak dagoeneko amaitu dira-eta. Horrek ez du esan gura datozen hilabeteotan gora begira ibiliko direnik, dagoeneko produktu berriak jarri beharko dituzte-eta salgai. Kontsumitzaileok ere lasaiago egon ahal izango dugu, orain badakigu-eta dendetan ez dela sekulako aukerarik izango. Izan ere, badirudi bekatua dela beherapenetan dendaz denda ez ibiltzea. Eta ibiltzekotan, hiriburuetako zentro komertzial handietan ito beharrean, herriko dendan, hobeto.

MADRILGO ANTZOKI EZAGUNETAN EZ DUTE JOAN DEN ASTEKO MODUKO ANTZEZLANIK IKUSI

Amaia antzokian antzerki emanaldi galanta egin zuten joan den eguen eta egubakoitzean. Arrasateko ikastetxeek bost antzerki talde osatu zituzten, eta euren emanaldiak maila onekoak izan ziren. Arrasate Institutukoek *Zer eman, hura hartu* antzezlana egin zuten. Arizmendiko (Almen) ikastetxeko ikasleekin ikusleek

Afrikara egin zuten jauzi. Eta egueneko saioa amaitzeko, San Viator guneko obra egon zen ikusgai. Egubakoitzean izan ziren Arizmendiko Ferixaleku guneko eta Mesedeetako Andra Mariko ikasleak; horiek ere bikain. Taula gainera igotzea zer den jakinda, apirilean antzerki talde profesionalak ikusi ahal izango dituzte.



ENPRESA TXIKIETAKO EK ETA AUTONOMOEK EZ DUTE GORA BEGIRA GERATZERIK

Argazki hori joan den martitzenekoa da, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak egindako mintegietako batean ateratakoa da. Kontua da, enpresa txikieta-ko langileendako eta autonomoendako mintegiak egiten dituztela Iraunkorren, egungo gizarteak ez du-eta onartzen lan

kontuetan atzean geratzea. Hala, martitzenean egin zuten mintegiak softwarea eta aplikazio informatikoak alokatzeko zerbitzuak gaia izan zuen abiapuntu. Bistan da izena ez dela oso erakargarria, baina bertan ikasitakoa, interesgarria bezain beharrezkoa.

Getting Started Latest Headlines Aramaio Bergara Elgeta Eskoriatza Goiena.net Zuia Arteman Bloglines

Sustatu.com: Teknol... Mathiasen kopilotua Goiena.net - Debagoie... Sustatu.com: Teknol...

Goiena.net Debagoieneko ataria

Mathiasen kopilotua

abenturak eta desabenturak

2005eko martxoaren 7a, astelehena

Gardel, Napoleon eta Dieguito

Maradonaren anekdota bat

Diego Armando Maradona Kolonbian dago egunotan. Munduko futbol jokelari onena izandakoa noraezean dabil aspaldian. Orain, obesitatearen aurkako tratamendua jasoko du Cartagenan. Medikuen arabera, urtebeteko epean, 121 kiloko pisua izateatik 70 kilo pisatzera pasatu ahal izango da argentinarra.

Donostia etorri zen lehenbiziko aldian Maradona ikusteko zortea izan nuen. Aitak eraman ninduen Atotxara, Bartzelonarekin lokatzen

HONI GURUZ

- Kontakto orria
- Aurkezpena
- Editatu

ARTXIBOA

Martxo 2005

MARTXOA 2005										
Al	Ar	Az	Og	Or	La	lg				
	1	2	3	4	5	6				
7	8	9	10	11	12	13				
14	15	16	17	18	19	20				
21	22	23	24	25	26	27				
28	29	30	31							

AVINLEK

- Kinleak (mezu bat)
- Liburuak (0 mezu)
- Musika (0 mezu)

MARTXA HORRETAN, GUZTIOK IZANGO DUGU LEHENAGO EDO GEROAGO BLOG BAT

Eta blog delako hori zer ote den galdetuko dute askok. Aduen iritziz, Interneti dagokionez 2004. urtea weblog edo blog delakoen urtea izan zen. Bloga Interneten jartzan den dietario pertsonala da, bitakora. Edonork sor dezake bere bloga, eta Goienanetek ematen du

horretarako aukera. Esango dizuegu hainbat arrasatearrek badutela euren bloga, Goio Aranek edo Kepa Diegezek, adibidez. Bakoitzak gura duen kontuen gainean idazten du bertan, hortaz, zerbait kontatze-ko daukuzela uste baduzue, badakizue: www.goiena.net klikatu.

ELKARRIZKETA

ANA MARIA BRIONGOS/ BIDAIARIA ETA IDAZLEA

“Gazteendako komenigarria eta ona da bidaiatzea; jakintza handia ematen du”

UBANE MADERA

A tzo, eguena, emititu zuten Roge Blascoren *La Casa de la Palabra* saioa Monterrondik; elkarrizketatuen artean, Ana Maria Briongos kataluniarra izan zen. Ia 40 urte egin ditu bidaiatzen Ekialdean: Afganistan, Iran, Pakistan, India...

60ko hamarkadan hasi zinen bidaiatzen; oraindik ere jarraitzen duzu?

1968an hasi nintzen. Eta semeak hazteko etenaldia izan ezik, beti ibili izan naiz hara eta hona. Zortea izan nuen. Izan ere, Iranera iraultza islamikoa iritsi zenean eta Afganistanera sobietarrak iritsi zirenean (1979), mutil-laguna nuen eta ezkondu eta bi seme izan genituen. Sasoi hartan ni ezin nintzen Iranera itzuli; horrenbestez hemen geratu nintzen, semeak apur bat hazi arte. Eta gero berriro itzuli naiz bidaietara.

Emakume izanda, bakarrik bidaiatzen ibili zara; arrisku-tsua dirudi horrek...

Neu oso pozik nago. Neska bidaiari guztiendako aitzindaria izan naiz; izan ere, neu hasi nintzanean oso neska bidaiari gutxi ibiltzen zen bakarrik. Eta nik ikusi dudana da herrialde haietan ere ibil daitekeela emakume izanda. Neu ibili naiz urte askoan, oso ondo zaindu naute eta oso seguru nengoela sentitu izan dut beti.

Emakumeekiko jarrera gogorra izan arren han...

Egia da, bai. Baina esan beharra dut oso pertsona zuhurra izan naizela eta beti errespetatu izan ditudala euren portaera eta euren janzkera; euren gizarteetan integraztea gustatu izan zait, kanpoko ia beharrez, euren familietan sartu nintzen eta oso babesuta sentitu izan dut nire burua.

Edozelan ere, han bizi diren emakumeen egoera larria dela ikusi duzu, ezta?

Bai. Emakumeak borroka egin behar du leku hobea lortzeko, gizartearen aurrerapenekin bat egiteko. Dena dela, uste dut guk errazegi galtzen dugula oroimena. Ni nagusia naiz eta gogoan dut Burgosko amama buruan zapia zuela ibiltzen zela, beti. Eta ez zuten behartzen, orduko ohiturak ziren, edo presio soziala. Orain dela 50-60 urteko kontuen gainean gabilza berbetan; ez dira urte asko.

Akaso guk hori guztia erlijio musulmanarekin lotzen dugu, baina uste duzu hori aitzakia besterik ez dela? Erlijioa erabiltzen dutela portararak inposatzeko hemen eliza katolikoak egin zuen moduan?

Jakina. Eta azkenaldian konturatu naiz edozein sineskeratako eliza lehengora, atzera, bueltatzen



ANA M. BRIONGOS

“Gogoan dut Burgosko amama buruan zapia zuela ibiltzen zela beti, eta ez zuten behartzen”

dabilela, postura kontserbadore-enetara. Eta hori gertatzen dabil mundu osoan.

Atzera pausoak ematen dabilta? Zergatik?

Baietz uste dut. Eta uste dut jende arruntaren arteko elkarbizitzan oinarritutako gizarte aurrerakoi baten aldeko egoera berriro aztertu beharko genukeela. Azken batean, eta nik bidaietan ikusi dudana moduan, herrialde haietako jendea gu modukoak dira. Guztiok gara berdinak. Hango familiek eta hemengoek kezka berak dituzte, hango emakumeek gure arazo berak... Beste guztia liderrek inposatutakoa izaten da.

Zergatik dauden atzera egiten, ez dakit. Eta egia esaten badizut, uste dut, oro har, dena zegoela ire-

“Ez naiz sekula itzuli Afganistanera. Itzultzekotan, hango errefuxiatuekin batera itzuliko naiz”

kiago 70eko hamarkadan, orain baino. Egia da, era berean, munduan arazo handiak daudela, lurraldeak inbaditzen dabilta...

Ikusita munduan geroago eta gehiago nahastuko gara Ekialdekoak eta Mendebaldekoak, gauza izango gara elkarrekin bizitzeko, gerra barik?

Elkarbizitza lortu egin behar dugu. Etorkinak dira gure erroka. Haiekin elkarbizitzen jakitea. Desberdintasunak beti egon dira; haiekin bizitzen jakin behar dugu.

Uste duzu bidaiatzea unibertsitate ona dela?

Bai. Gazteendako komenigarria eta ona da bidaiatzea; traste gutxi eskuetan hartu, munduan ibili eta beste lekuetako jendea ezagutzeko. Jakintza handia ematen du.

Bihar, 45 emakume artisau eta baserritar Herriko Plazan

U.M.

Aldarrikapenak eta protesta ekitaldiak egin dituzte aste barruan emakumeen egoera salatzeko. Bihar goizean, berriz, azoka egingo dute, Herriko Plazan. 10:00etan hasiko da, 14:00ak arte.

Martitzen goizean, ELA-ESK eta STEE-EILAS sindikatuek emakumeen pobrezia eta ezegonkortasuna salatu zuten. Kale agerraldia egin zuten Enpleguko Institutu Nazionalaren aurrean. Besteak beste, jakinarazi zuten Oinarrizko Errenta hartzen duten pertsonetatik %70 emakumeak direla eta emakumeen langabezia-tasa (%9,5) gizonezkoena baino handiagoa dela (%6,5).

Martitzen arratsaldean, berriz, herritar dezente elkartu zen emakumeen aldeko manifestazioa egiteko, *Emakumeen eskubideen alde, elkartu bideak* leloarekin; eta, horren ostean, luntxa egin zuten. Eguenean, berriz, film emanaldia izan zen.

JAKIAK, JOSTAILUAK ETA BESTE, AZOKAN
Eta oraingo asteburuan eta datorren astean segituko dute ospa-

kizun eta aldarrikapen ekitaldiak. Hasteko, bihar, zapatua, emakumeen azoka egingo dute Herriko Plazan. Emakume Txokotik jakinarazi digutenez, 45 artisau eta baserritar izango dira emakumeak. Horietatik, hamar bat Arrasatekoak. Hala, denetarik saltokiak ipiniko dituzte plaza: kontserbak, kremak, xaboiak, ume jantziak, jostailuak, produktu ekologikoak, ezta... Azoka 10:00etan hasiko da eta 14:00ak arte izango da zabalik. Tartean, bertsolariak saioa egingo dute.

BERTSOLARIAK

Hain zuzen ere, 13:00etan hasiko da bertso-saioa. Jesus Mari Irazu, Sustrai Colina, Nerea Elustondo eta Amaia Agirre bertsolariak jardungo dute, Unai Lizasoren gaien arabera.

Gero, datorren astean, egunerako hitzaldia antolatu dute. Prostituzioa izango dute berba-gai, Bartzelonako unibertsitateko irakasle Dolores Juliano antropologoaren eskutik. 19:00etan hasiko da, Emakume Txokoa. Eta egubakoitzean, Lakrikun taldearen *Greban gaude* lana antzertuko dute. 20:00etan hasiko da hori ere Emakume Txokoa.




Enpleguko Institutu Nazionalaren aurrean egin zuten agerraldia.

LABUR

Lau udaltzainendako lanpostu deialdia egin du Udalak, praktikaldiko funtzionario izateko

Udaltzain izateko interesa duenak martxoaren 23a baino lehen eman beharko du izena, udaletxean. Honako titulu hauetakoren bat izan behar du hautagaiak: eskola graduatua, Lanbide Herriko ketako lehen maila edo haren baliokideren bat. Bestelako ezar-garriak ere bete beharko dituzte: esaterako, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, asko jota 32 urte izatea (edozelan ere, toki administrazioan Udaltzaingoan egindako lanari esker, gaitu egin ahal izango da muga hori); gizonezkoek gutxienez 1,65 cm neurtzea eta emakumezkoek 1,60 cm, eta zigorrik ez izatea delinkuentzia delituen batengatik.

Gero, oposizio-lehiaketa bidez sarbide irekiko sistemaz hautatuko dituzte hautagaiak. Era berean, hautagaiak gaitu egin beharko dute karrerako funtzionario izendatzeko prestakuntza eta praktikaldia.



Herritarrek hilerrria bisitatzeko duten egutegian eta ordutegian ez du aldaketarik egingo Udalak.

ZERBITZUAK/ Hilerrien erabilera, domeketan eta jaiegunetan

Hilerrietako jaiegunetako zerbitzua kendu egingo dute

UBANE MADERA

Maiatzaren 1etik aurrera, herriko hilerrietan ez dituzte zerbitzurik egingo domeketan eta jaiegunetan. Hala erabaki du oraingo astean Tokiko Gobernu Batzarrak. Dena dela, beharra dagoenean, Udalak gorpua hartu eta gorde egingo ditu, doan.

Gipuzkoako 15 herritako ordezkariarekin izan da Arrasateko Udalak erabaki hori hartu baino lehen. Eta ikusi dute, herri gehienetan, hildakoak hartu egiten dituztela kanposantuetan domeketan eta jaiegunetan, baina ez dituztela bestelako zerbitzurik ematen.

Gauzak horrela, Arrasateko Udalak gauza bera egitea eraba-

ki du: zerbitzurik ez ematea. Hori bai, hildakorik badago eta haren familiak hala nahi badu, Udala arduratuko da gorpua gordetzeaz, eta beharrezkoa denean, errefrigeratuta kontserbatuko du, San Kristobal hilerrian. Zerbitzu horrek ez du kosturik izango familiarendako. Amaia Arana udal teknikariak argitu digu hobeto: "Hileta-elizkizuna zapatuan edo domekan egiten badute, haren ostean ez da enterramendurik eta errausketarik izango, ez San Kristobalen ezta Arrasateko gainerako hilerrietan ere. Baina familiak hala nahi badu, hildakoaren gorpua berriro etxera eraman behar-rean, Udala egingo da haren kargu eta San Kristobal hilerrian gordeko dugu, enterratu edo erraustu arte". Halaber, auzoetako hilda-

koen kasuan bide bera erabiliko dutela jakinarazi digu Amaia Aranak, hau da, haiek ere aukera izango dutela gorpua San Kristobal hilerrira eramateko, nahiz eta gero hildakoa auzoko kanposantuan ehortzi. Edozelan ere, zerbitzua abiarazitakoan joango dira xehe-tasunak erabakitzen.

BISITAK-ETA, LEHEN MODUAN

Bestalde, udal teknikariak argi utzi du erabaki horrek ez duela bestelako eraginik izango hilerrien erabileran. Hau da, nahiz eta jaiegunetan-eta zerbitzurik eman ez, hilerririk zabalik izango direla herritarrek bisitatu egin ditzaten. San Kristobal hilerriarren ordutegia honako hau da: 08:30etik 19:00etara. Beilatokia, berri, 08:30etik 20:30era zabaltzen dute.

Gelma lantegiaren ondare industrialak Udalak gordeko du

U.M.

Abenduan sinatu zuten hitzarmena Fundiciones Gelma lantegiak eta Udalak. Haren arabera, Udala arduratuko da lantegiak duen ondare industrialarekin. 82 tresna emango dizkio galdategiak.

Arrasateko historiarekin lotura zuzena duen materiala da Gelma emango duena; lantegi haren adierazgarri diren tresnak: galkatzeko makinak, artoarendakota eta ehogailuak, okela pikatzeko makinak, izozkiak egiteko, armairuak, liburuak, kafeterak... 82 tresna, guztira.

Udaleko bozeramaile Ines Aldaik jakinarazi digunez, orain arte, material hori lantegiko bitri-

netan, apaletan... gorde dute. Baina orain, Gelma lekuz aldatu behar dute, eta lantegi berrian ez dute leku egokirik haiek gordezeko. Horren ondorioz, erabaki zuten Udalarekin hitzarmena sinatzea, Udalak gorde dezan ondare industrial hori.

INDUSTRIA ERAKUSKETAN

Ines Aldaik jakinarazi digunez, Udalaren asmoa da behin Industria Erakusketa egokitzen dutenean, Gelmaren ondarea (edo haren zati bat) orain arte batu duten gainerako ondare industrialarekin batera ipintzea, jendeak ikusi ahal izateko.

Industria Erakusketa edo museoa Saiolan eraikinaren beheko aldean ipintzeko asmoa du Udalak.

LABUR

Garapen bidean diren zenbait herritako proiektuen gaineko hitzaldia, Monterronen

Datorren astelehenean, hilak 14, garapen bidean diren zenbait herritan lantzen dabilen esperientziak kontatuko dituzte Monterronen. Hain justu ere, Mexikon, Nikaraguan, Kuban eta Hondurasen egiten dabilen proiektuen gainean berba egingo dute. Horiek guztiak Mundukide elkarteak lantzen dabilen prestakuntza-planeko partaideak dira. *Truke* programaren barruan dabilta hori lantzen.

Gobernuz kanpoko Harreman elkarteak antolatu du ekimena, "Arrasatek aukera izateko gure babes osoa behar duten herri horiei buruzko informazio zehatza jasotzeko, eta herri horien errealitatera gerturatzeko". Ekitaldia 19:00etan hasiko da.

Aparkamendu txarrek eragindako arazoak konpondu nahian dabil Udalak

Herriko zenbait kaletan gaizki aparkatzen dira autoak, eta hori dela-eta kexuak izan ditu Udalak. Zarugalde kalearen kasua da hori, esaterako. Hala, arazoa konpontze aldera, Udalak erabaki du kale hartan lanak egiten dabilen bitartean, kaleko lehen zatian (Monterrondik gertuen) pasabidea duten garajeen sarre-rak babestea, pibot edo zintarri batzuen bidez.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

ELKARRIZKETA

JOSE LUIS EZKURRA/MONDRAKO PRESIDENTEA, TALDEA UZTEKO GERTU

"Inor azaltzen ez bada, Mondrak hori merezi duelako izango da"

XABIER URTZELAI

Hamazazpi edo hamazortzi urte egin ditu Ezkurrak Mondrako zuzendari (berak ere ez dauka argi zenbat urte izan diren), eta agur esateko ordua iritsi zaio. Hilabeteko epea eman du zuzendaritza taldeak hautagai berriak aurkezteko, baina, momentuz, ez da gauza argirik entzun.

Gura beste urte egin eta gero, Mondra utziko duzu.

Halaxe da, bai. Aurreko urteotan ere ibili gara asmo horiekin. Baina taldea zor barik uzteko konpromisoa hartu genuen, eta joan den urtean hori lortu ez genuenez, urtebete gehiago egitea erabaki genuen.

Lortu duzue helburua.

Bai, kluba zor barik utziko dugu, eta garrantzitsua da hori.

Batzarrean ere esan zenuen: "Jendeak uste zuen sekula ere ez genuela utziko", bistan da baietz.

Bai, jendeak argi izan dezala taldea utzi egingo dugula, eta errebua behar dela. Dagoeneko eman dugu taldea uzteko lehenengo pausoa.

Badago berririk?

Egia esateko, ez. Baina ez dut sinistu gura inor ez denik azalduko, inork ez duela taldea hartuko. Jendeak galdetzen duenean "eta inor azaltzen ez bada, zer?", niretako galdera horrek ez dauka zentzurik, derrigor egon behar du-eta norbait. Eta, inor azaltzen ez bada, gogorra da esatea baina taldeak hori merezi duelako izango da.


Joan den urtean, gurasoe-kin izan zineten berbetan.

Halaxe da, baina ez genuen erantzun argirik jaso. Ez dakit ondo azaldu ginen, edo zertan ez genuen asmatu. Baina euren semeak dira kirola egiten dabil-tzanak, entretenituta daudenak...

Batzuek pentsatuko dute Arrasaten talderik ez badago semea Aretxabaletako taldera eramango dutela. Niri hori burutik pasa ere ez zitzaidan egingo, are eta gutxiago Arrasatekoa izango banintz. Lehenengo, herriko taldearen alde lan egitea da.

Zer behar da horrelako klub bat zuzentzeko?

Bistan da talde polita osatuz gero lana erraztu egiten dela. Bergaran, gurasoek hartu dute klubaren zuzendaritza, eta azkenean, jende gehiago behar ez zutela esan behar izan dute. Horrelako klub bat zuzentzeko ez da aparteko ezer behar, denborarekin ikasten den kontua da. Eta argi utzi gura dut hortxe izango garela gu, behar denerako laguntzen, kluba



XABIER URTZELAI

"Zenbat eta zuzendaritza talde politagoa osatu, hobeto; lan gutxiago izango dute egiteko"

eramateko trikimailuak erakusten, aholkuak ematen...

Saskibaloian, hainbat guraso animatu eta eurak izan dira lehengo zuzendaritzakoak motibatu dituztenak.

Hori da behar dena, jende gaztea ideia berriekin. Babesleak lortzeko ere, jende asko batuz gero, beti da errazagoa dirua jartzeko gertu dagoen norbait topatzea. Eta gainera, bi urte barru-edo futbol zelai berria egiten dutenean gauzak askoz ere errazagoak izango dira, beste gauza batzuen artean zelaia ez duelako ia lanik emango.

Inor azaltzen ez bada, denboraldi amaierara arte eutsiko diozue.

Bai, oraingo hilabetean pro-

"Bergaran gurasoek hartu dute kluba, eta dagoeneko jende gehiago behar ez dutela esan dute"

posamenik jasotzen ez badugu bigarren eta azken deialdia egingo dugu, eta orduan orain baino argiago egingo dugu berba. Eta orduan ere inor azaltzen ez bada, gu ekainera arte egongo gara. Hortik aurrera, bakoitzak bada-ki zer dagoen.

Eta ekainetik aurrera zertan emango dituzu orain arte futbolari eskaini dizkiozun orduak?

Bi iloba dauzkat, eta eurak dira daukadan denbora-pasa ederrera. Gainera, jarraituko dut nire denbora librearen zati bat futbolari eskaintzen, kirol hori berdin maitatzen jarraitzen dut-eta. Adibidez, sarriagotan joan ahal izango naiz Mondrako partiduak etxetik kanpo ikustera.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Abokajarro - Saukelu Scream	3-8
Fuxion - Tomahawk	5-4
Iriztu Taberna - Torpedo Musakola	11-5
AC Surcos - Goma2	9-4
Lasagabaster - AT Celaya	4-3
Ekipo Aldeano - Irati Taberna	3-4
Dribling - HLB 108	2-3
Manhattan Pip. - Betrayer	2-5

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. Irati Taberna	21	13
2. AC Surcos	19	13
3. You Know!	19	12
4. Betrayer	18	12
5. Saukelu Scream	18	12
6. Lasagabaster	16	12
7. Dribling	15	13
8. AT Celaya	14	12
9. Iriztu Taberna	14	12
10. La Kuadrilla	10	12
11. HLB 108	10	13
12. Fuxion	10	12
13. Goma2	10	12
14. Abokajarro	9	12
15. Billy & The Cowboys	9	11
16. Torpedo Musakola	7	13
17. Tomahawk	6	12
18. Manhattan Pippol	4	12
19. Ekipo Aldeano	3	12

PARTIDUAK

MARTXOAK 12, ZAPATUA. EPAILEAK

11:00: You Know! - Torpedo M.	AT Celaya
12:00: AT Celaya - Saukelu Scre.	You Know!
13:00: Dribling - La Kuadrilla.	Saukelu Scre.
16:00: Iriztu Tab. - Irati Tab.	Lasagabaster
17:00: Manhattan Pip. - Lasagabast.	Irati
18:00: Abokajarro - Ekipo Ald.	Manhattan.

MARTXOAK 13, DOMEKA. EPAILEAK

12:00: Billy & The...	Fuxion	AC Surcos
13:00: Betrayer - AC Surcos.		Fuxion

Deskantsua: HLB 108, Tomahawk, Goma2



ZALDIBARKO WEBGUNEA EGITEN

EPERIK JARRI EZ BADUTE ERE, ANTOLATZAILEAK GOGOR DABILTZA LANEAN

Zaldibarko Txapelketa antolatzeke lan handia egin behar da, baina txapelketa horren gaineko webgunea egiteak ere badu bere lana. Joan den astean, antolatzaile batzuk ARRASATE PRESSEK hainbat urtean jaso duen informazioa batzen ibili ziren, eta oraindik dezente daukate egiteko. Pentsa dezakezuen moduan, ale mordoa begiratu behar dira, banan-banan, eta informazioa batu. Horrekin batera, erretratu zaharrek ere izango dute euren tokia, baina geroago hasiko dira horretan.

Kontua da Zaldibarko antolatzaileek beste aurrerapauso bat egin gura dutela, eta txapelketaren berri sarean eman. Asteroko jardunaldiak, sailkapenak, zigor eta gomendioak... Egia esan, egitasmo horrek aurrera egiten badu Zaldibarko txoko honek irakurleak galduko ditu, baina asmatuko dugu orduan ere zerbait. Azken baten, txapelketak bultzada polita izan dezake sarean, eta pentsa Zaldibarren gaineko eztabaida-gunea irekiko balute. Orduan ere, antolatzaileek izango lukete lana, moderatzaile lanak egiten.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Zestoa
Preferentea. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.
Hondarribia - Mondra
Ohor. Gazteak. Zapatuan. 16:00. Hondarribian.
Arrasate - San Ignacio
Gazteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
Eibar - Arrasate
Ohor Kadet. Domekan. 16:00. Eibarren.
Arrasate - Eibartarrak
Infantilak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.
Beti Ona - Mondra
Emakumeak. Zapatuan. 15:30. Errenteria.
Bergara - Arrasate
Alebinak. Domekan. 10:00. Aretxabaletan*.
*Alebinek Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian jokatuko dute oraingo astean.

ESKUBALOIA

AGR Arrasate - Donibane Majestic
Lehen territ. Domekan. 12:30. Iturripen.
Gatz Museoa Jakion - Itxuri Jatetxea
Gazteak mut. Domekan. 10:45. Iturripen.
Zahara Kafetegia - Arrasate
Gazteak neska. Domekan. 10:00. Legazpiñ.
OET-BKL-OKE - Arrasate
Infantilak. Domekan. 09:30. Ordizian.
*Bigarren territorialak deskantsua du.

EMAITZAK

ESKUBALOIA

Arrasate - Elgoibar	21-22
Bidasoa Irun - AGR Arrasate	26-30

MENDIKO ESKIA

Bihar amaituko dute Isa Casadok eta Leire Ezpeletak Pierra Menta lasterketa

Eguaztenean hasi zuten Areches Beaufort-en (Alpeak) lau eguneko proba, eta bihar egingo dute 'Grand Mont' izeneko azken etapa ezaguna

XABIER URTZELAI

Lehenengo etapa hastearekin batera idatzi behar izan ditugu lerro hauek, eta ezinezkoa zaigu eguaztenez gaur arte Isa Casadok eta Leire Ezpeletak egin dituzten hiru etapen berri ematea. Alpeetatik itzultzerakoan eurek kontaktuko digute hori.

Bitartean, proba horren berri emango dizuegu. 1982an egin zuten lehenengoz Pierra Menta lasterketa, eta ordutik ez du etenik izan. Lau etapaz osatutako proba gogorra da, eta aurtengo edizioan 354 lasterkaririk eman dute izena. Lehenengo etapa lasaia bada ere, hurrengo hiru etapetan 3.000 metroko desnibelak izango dituzte, eta proba amaitzen denetarako, lasterkariek 10.000 metroko desnibelak gaindituko dituzte.

FEDERAZIOAREN OPARIA

Arrasateko bi eskiatzaileak dira Hego Euskal Herriko ordezkari bakarrak. Joan den urtean lortutako emaitzei esker daude egu-

notan Alpeetan; Euskal Herriko Mendi Federazioaren oparia izan da. Joan aurretik, eta probaren gogortasuna ikusita, txantxetan esan zigun Isak oparia baino gehiago zigorra zela. Dena-dela, bai Isak eta baita Leirek ere gogotik prestatu dute lau egunetako proba, hori dute-eta denboraldiko helburuetako bat.

Orain arte egin dituzten Euskadiko Kopako lasterketetan ikusi da Arrasateko biak zelau dauden. Momentuz, eurak daude txapelketa horretako lehenengo postuetan, eta bistan da ez daukatela parekorik; hau da, bietako batendako izango dela, aurturten ere, Euskadiko Kopa.

LEIRE, HOBETO

Pierra Mentako lasterketara begira, Isak aitortu zigun gero eta hobeto badago ere, Leire gorpuztaldi hobean dagoela. Orain arte, lasterketa bat irabazi du Isak, baina jaitsieran erakutsitako abileziagatik lortu zuen hori. Pierra Mentan, igoerak bezain garrantzitsuak izango dira jaitsierak.



Luz Ardidenen erakutsi bezala, Arrasatekoak ondo moldatu dira egun bakarreko probetan; Pierra Menta, baina, lau egun dira.

FOTOKIROLA



Igoera fasean dauden bi talderen arteko norgehiagoka, azkena

AGR Arrasatek joan den astean erakutsi zuen, komeni ez bazen ere, taldea irabaztera kantxaratzaren dela beti. Eta komeni ez dela diogu; izan ere, Arrasateko taldea dagoeneko sailkatuta dago igoera faserako; eta alde handia dago bigarren edo hirugarren postuan sailkatu. Hirugarren sailkatzen denak lasaiago hasiko du igoera fasea. Dena dela, Arandoren mutilek, liderraren astemendean hartuz, erakutsi zuten ahalik eta goren amaitu gura dutela txapelketa. Oraingo asteburuan, goialdean dabilzan bi kontrariok neurituko dituzte indarrak: AGRk eta Donibane Majesburuan, hain zuzen. Argazkian, bigarren territorial mailako taldea; 21-22 galdu zuten gora igoetzeko lehiaren dabilen Elgoibarren kontra, denboraldiko azken norgehiagokan. /X.U.

Aloña Mendik emandakoa Zestoari itzultzearekin, nahiko

X.U.

Markagailuari dagokionez, Mondrak makilakada ona jaso zuen joan den astean Aloña Mendiren kontrako derbian (4-1). Atzetik baina gain-ganean dagoen Zestoa etorriko da bihar Atxabalpera.

Norgehiagoka hasi aurretik eta futbol zelaia ikusi barik, Mondrako gutxi zeuden derbia jokatze irrikari. Ondo zekiten arrastearrek Azkoagain futbol zelaia zein egoeratan egongo zen. Bazezkiten ez zutela futbolearen egingo; borrokan egitea izango zen kontua. Esan gabe doa, puntu beharrean dagoena lehiarako gertua.

go zelairatzen dela, eta halaxe jokatu zuten Aitor Oruetaren mutilek derbia, gogotsu. Eta, gainera, azkeneko urteotan Oñatiko taldeak ondo hartu dio neurria Mondrari; Azkoagainen bai, behintzat.

ZESTOA, POSTU BAT ATZERAGO

Zestoak badaki aurturten Aloñari Azkoagainen irabaztea zer den (2-3). Azkeneko urteotan nahikoa lan izan du Zestoak preferentzen mantentzeko. Aurturten, baina, nahiko txukun dabilza, eta erakutsi dute euren etxean irabazteaz gain, kanpoan ere puntuak eskuratzeko gauza direla. Momentuz, Mondra baino postu bat atzerago baino ez daude.



Tiri, Aloña Mendiko jokalaria bat atzean uzteko gertu.

GOIENKARIA



Argazkian, Korrikaren aldeko Arrasateko batzordeko kideak, herriko hainbat elkarte ordezkakuta.

Eguaztenean Korrikari ongietorria egiteko, kultura egitarau mardula

IKER BARANDIARAN

Korrikaren aldeko Arrasateko batzordeak prentsaurrekoa egin zuen antolatu duten kultura eskaintza azaltzeko, eta herritarrek, erakundeek eta enpresek eman duten babesa eskertzeko.

Oso pozik daude Korrikaren aldeko batzordekoak. Dagoeneko Arrasateri egokitzen zaizkion baino kilometro gehiago saldu dituzte, Korrika laguntzaile asko egin dituzte eta herritarrak irrikan daude eguaztenean Korrikari ongietorria egiteko.

Prentsaurrekoa Korrikaren ibarreko arduradun Ibai Redondok eta AEK-ko kide Alain Ulaizak eman zuten. Alboan batzordean esku hartu duten taldeetako ordezkariak izan zituzten.

Ibai Redondok 14. Korrikaren leloa gogoratu zuen: *Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai*. Azpimarratu zuen aurtengo edi-

zioak euskaldun berriak omen du gura dituela: "Andolin Eguzkitza hartu dugu irudizat, baina baita ere Eguzkitzak bezala euskara ikasteko esfortzua egin duten guztiak". Horrekin batera, Korrikaren helburuak azpimarratu zituen: euskararen aldeko konpromisoa kalera ateratzea; Korrikarekin batera kultura ekarpena egitea; eta AEK-k helduak euskalduntzen jarraitzeko dirua lortzea.

Aditzera eman zuten eguaztenean Korrika 20:00etan izango dela Kanpanzarren. Eta 20:30ak aldera Arrasatera helduko dela.

*Eguaztenean
Korrika herrira
heldu arte, adin
guztietarako
ekintzak izango dira*

HERRIKO TALDEAK, IKUSKIZUNAK...

Azken egunotako film laburren emanaldiaz gain, gaur, egubakoitza, Madrilgo Coilbox eta Arrasateko Anger taldeek kontzertua egingo dute gaztetxean, 22:30ean.

Bihar, zapatua, Korrikaren aldeko materiala salduko dute Portaloian. 19:00etan, Trikitixa Eskolakoek kalejira egingo dute, eta herriko dantza taldeek emanaldiak egingo dituzte erdialdeko kaleetan. Domekan, *Euskara senziloaren manifestua* antzezlan izango da Amaia antzokian.

Eguaztenean, hilaren 16an, gaztetxoek Korrika Txikia egingo dute, 15:00etan. Horren ostean, txokolate-jana egingo dute Herriko Plazan. Hortik abiatuta eta 21:00ak arte, ez da atsedaldirik izango: Detraka taldearen *Zirkus-mirkus* ikuskizunak, erraldoi eta kilikien konpartsak, Arrasateko Musika Eskolako Zirkuko Bandak eta txalapartariak, besteak beste, girotuko dute itxaronaldia.

Emakumeen arteko harremanak, antzezlanean

I.B.

Datorren egubakoitzean, hilaren 18an, Emakumeen Kontseiluak antzezlan bat eramango du Emakume Txokora. Emakumezkoen gaineko komedia egingo du Lakrikun taldeak.

Martxoaren 8aren gaineko ekitaldiak bukatzeko, datorren egubakoitzean, hilaren 18an, Lakrikun antzerki taldeak *Greban gaude* ikuskizuna egingo du, 20:00etan, Emakume Txokoran.

Hiru garbitzailek grebara joatea erabaki dute, baina grebaren zergatia zein den ez dute argi. Hala, hirurak elkartu eta horren gainean berba egiteari ekin diote. Eta hainbat gai eztabaidatuko dituzte, ironia handiz: maitasuna, familia, sexua, ilusioak, eta abar. Hori guztia emakumezkoen hainbat pentsaera eta ikuspegi erakutsita.

kumezkoen hainbat pentsaera eta ikuspegi erakutsita.

IKUSKIZUN UMORETSUA

2003an estreinatu zuten ikuskizun hori, Azpeitian, eta oso harre-ona izan du orain arte. Umoretsua da, eta testuak erraz uler daitezke. Lana komedia generoan kokatuta dago, eta 12 urtetik gorakoei zuzenduta dago.

Hiru aktorek egiten dute lan: Alaitz Olaizolak, Idoia Urangak eta Gurutze Eizmendik, hain zuzen ere. Eta hiru lagun irudikatatu beharko dituzte. Honako hauek, hain zuzen ere: Elena gaztelaraz sarritan egiten duen airo-sa bat da. Usadio zaharreko emakumezkoa da; Arantxa beti negarrez dago eta oso sentibera da. Besteen esanetara moldatzen da, irizpide handi barik; Jaione modernoa da, eta oso jarrera irekia dauka.



Greban gaude antzezlanarekin bukatuko dute martxoaren 8aren gaineko egitaraua.

KULTURAPILULAK

Maiatzean Juanito Artzamendiri egingo dioten omenaldirako, abeslariari gonbidapena

Orain dela gutxi, aditzera eman genizuen herriko hainbat talde (Arrasateko Musika Eskola, Goikobalu, eta abar) Juanito Artzamendiren omenaldia prestatzen dabiltzala. Omenaldi hori maiatzaren 28an eta 29an egingo dute. Beste talde batzuen artean, Goikobalu buru-belarri dabil prestaketa lanetan, eta gonbidapena egin die arrasatear guztiei eta batez ere Goikobalun inoiz esku hartu duten abeslariari, entseguetara jo dezaten: martxoaren 8an eta 10ean; apirilaren 12an, 14an, 19an eta 21ean; maiatzaren 17an, 19an, 24an eta 26an. Martitzenetan, Musika Eskolan, 21:00etan; eta eguene-tan, Gazteluondon, 20:00etan.

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

PUB
HAIZEA



ELKARRIZKETA

TOMAS RUBIO/MARGOLARIA

"Paisaien bitartez ematen dut aditzera esan gura dudana"

IKER BARANDIARAN

Eskoriatzako Tomas Rubio margolariak erakusketa jarri du Harresi aretoan. Besteak beste, Arrasateko eta inguruko paisaiak margotu ditu, eta hilaren 20ra arte izango ditu lan horiek guztiak ikusgai.

Noiz hasi zinen margotzen? Zure kabuz ikasi duzu?

Betidanik izan dut margotzeko zaletasuna, baina orain dela 25 bat urte Gasteizko eskola baten Margolaritza ikasten hasi nintzen. 5 urte egin nituen han, eta Fernando Delgado irakasleak teknika eta kolorea irakatsi zizkigun. Delgadok berak Arte Ederak egiteko konbentzitu ninduen. Hasieran zalantzan egon nintzen, ordurako 40 urtetik gora neukalako, baina azkenean Leioan matrikulatu nintzen. Hirugarren mailara arte eutsi nion. Ikasketak bukatzeko eskolara joatera behartu ninduten, baina lanak baldintzatzen ninduen, eta utzi egin behar izan nuen.

Arrasatera etorri aurretik, beste hainbat erakusketa egingo zenituen, ezta?

Bai. Lehena Gasteizko Oken-do galerian egin nuen. Horren ostean, beste hainbat egin ditut: Bilbon, Oñatin, Errioxan, Eskoriatzan...

Lehiaketetan, berriz, ez daukazu esku hartzeko ohitura handirik, ezta?


Ez. Lehiaketa oso gutxitan esku hartu dut. Izan ere, margotzen hasi nintzenerako nagusi samarra nintzen, eta konturatu nintzen lehiaketetan batez ere gazteak zebiltzala. Arrazoi horregatik gutxitan jo dut horrelakotara. Gogoan daukat inoiz Arrasaten aire zabaleko lehiaketaren baten egon naizela, baina horrez gain, ezer gutxi.

Harresi aretora eraman dituzun lanak azkeneko sasoi-koak dira?

Bai. 29 lan batu ditut, eta gehienak azkenaldian egindakoak dira. Sei bat lan Eskoriatzan egin nuen erakusketakoak dira, baina beste guztiak orain dela gutxi bukatu ditut. Gehienak Debagoieneko eta inguruetakoa paisaiak dira, baina badago natura hilen bat eta Pirinioetako paisaiaren bat ere bai.

Erakusketan antzematen denez, Arrasaten margotzen sarri ibili zara?

Orokorrean, ibar osoan ibiltzen naiz, eta Arrasaten badago zer margotu, jakina. Erakusketa honetan inguru hauetako paisaiak margotu ditut: Bedoña auzoa, Portaloia, Zurgin kantoia, Garagartza, eta abar.



"40 urtetik gora neukala, Arte Ederrak ikasteko matrikulatu nintzen Leioan"

Zure lan gehienak paisaiak dira. Lekuan bertan margotzen duzu ala argazkia egin eta etxean margotzen duzu?

Denetatik egin izan dut. Lehen, kasu gehienetan lekuan bertan margotzen nuen. Baina aspaldian, paisaiaren edo figuraren alboan ikatz-zirriekin zirriborroak egiten ditut. Horren ostean, estudioan margotzen dut eta lanari gura dudana bukaera ematen diot, xehetasun edo tonu konkretu bati garrantzi handiago emanda. Oso garrantzitsua deriztot estudioan lasai-lasai ideia edo lan hori garatzeari. Horri esker, ukitu pertsonala eman ahal izaten diot lanari. Emaitzan zeresan handia dauka estudioan egindako lanak.

"Estudioan bukaeran egindako lanak zeresan handia dauka emaitzan"

Paisaia figuratiboa egiten duzula nabarmendu izan duzu...

Bai, hala da. Figurazioa eta natura hilak egiten ere ikasi dut, baina paisaien bitartez ematen dut aditzera esan gura dudana. Beste gauza batzuk margotuz gero, ez naiz emaitzarekin hain gustura gelditzen. Natura hilak egitea gehiago kostatzen zait, eta emaitzak ez nau horrenbeste betetzen. Horrez gain, inoiz erretraturik egin izan dut, baina ez dut ohiturarik.

Egunero margotzen duzu?

Eskoriatzan bertan lokal bat daukat, eta ahal dudan guztietan, ia egunero, han ibiltzen naiz margotzen. Gainera, enkargu dezentegiten dizkidate.

CLIVE OWEN



CLOSER

Cuando crees en el amor a primera vista... No dejas de buscarlo.

COLLINA PICTURES presenta una película de MIKE NICHOLS. JULIA ROBERTS. JUDE LAW. NATALIE PORTMAN. CLIVE OWEN. "CLOSER"

ARRASATE PRESS

Aktore ezagunek esku hartuko dute film korapilatsu horretan.

Harreman korapilatsuak eta Irakeko salaketa-kronika

I.B.

Asteburuan, aktore ezagunek esku hartzen duten *Closer* drama; eta umeendako, *Bob esponja* emango dute. Eguenean, zineklubean, *Bagdad rap* dokumentala aurkeztuko du zuzendari Arturo Cisnerok.

Domekan antzezlan egingo dute Amaia Udal Antzokian. Horregatik, bihar, zapatua, eta astelehenean bakarrik egongo da filmak ikusteko aukera. Bi egun horietan *Closer* drama emango dute. 98 minutu irauten du eta Mike Nicholsek zuzendu du (*Lobo, Primary colors, Wilt...*).

Gaur egungo Londresen lau ezezagunek —Julia, Jude, Natalie eta Larry— sexu-elkartzeak, bat-bateko erakarpenak eta aldizkako traizioak bizi izango dituzte.

Harremanetan oinarritutako film horren protagonistak honako hauek dira: Nathalie Portman (*A cualquier otro lugar, La fuerza del amor...*); Jude Law (*Cold Mountain, Enemy a las puertas...*); Julia Roberts (*Ocean's twelve, Erin Brokovich...*); eta Clive Owen (*El rey Arturo, El caso Bourne...*), besteak beste.

Istorioa antzezlan baten oinarrituta dago; eta filmak Oscarretarako bi izendapen jaso zituen.

Horrez gain, bihar, zapatua, umeendako *Bob esponja* lana emango dute. Animaziozko lan horrek 90 minutu irauten du, eta Stephen Hillenburgek zuzendu du (*Nickelodeon SpongeBob SquarePants* animaziozko telesailaren egilea da).

DOKUMENTAL GORDINA

Eguenean, hilaren 18an, izen handia hartu duen dokumental gordina emango dute. *Bagdad rap* lanak 75 minutu irauten du, eta Arturo Cisneros nafarrak egin du.

Irakeko gerra eta inbasioa hasi aurretik, hainbat lagun lanera joan ziren Bagdadera, brigadista, han gertatutakoa ikusi eta kontatu ahal izateko. Horiekin batera, Arturo Cisnerosek eta haren lantaldeak gerra eta horren ondorioak filmatu zituzten. Film horretako protagonistak irakiarrak dira, gerra horren biktimak. Bizi izan dutena kontatuko dute eta irudiek ere argi eta garbi erakutsiko dute gertatu dena. Gazteen arretera lortzeko, Cisnerosek rap musika —oso zuzena— erabili du.

KULTURAPILULAK

Autoestimua eta norbere ezagutza ikastaroa Ekin Emakumeak elkartearen eskutik

Ekin Emakumeak elkarteak autoestimua eta norbere ezagutza ikastaroa antolatzen du datozten egunetarako. Ez da lehenengo aldia ikastaro hori antolatzen dutena, eta helburua da norberaren burua eta gaitasunak ezagutzera, eta horren bidez nork bere burua hobeto baloratzen ikastea.

Irakaslea Arantzazu Loidi izango da, eta eguaztenean, hilaren 16an, eta eguenean, emango dute, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Izenematea bukatzean dago. Interesatuak jo Pablo Uranga 6ra edo deitu honako telefono zenbakira: 651 70 79 36.

ELKARRIZKETA

MARSEL/MAGOA

“Jende askok uste du magia ez dela serioa; proba dezala, eta gozatuko du”

IKER BARANDIARAN

Udaleko Gazte Sailak bi ikastaro antolatu ditu Aste Santu osterako: sabel dantza eta magia ikastaroa. Magia ikastaroa Xixka elkarteke hainbat magok emango dute. Horien artean, Marsel magoak.

Zer da Xixka elkarte? Noiz eta zeintzuek sortu zenuten?

Xixka Gipuzkoako magoen elkarte da. 1993an eratu genuen elkarte, baina aurretik ere bazegoen talde bat. Orain dela 12 urte hasi ginen ekintzak egiten. Gurea elkarte txikia da. Gaur egun 25 lagunek osatzen dugu: batzuk profesionalak gara, beste batzuk zaleak, eta beste batzuk laguntzaileak. Xixka izena xixkatzea hitzetik dator (gaztelerazko *escamotear*), eta xixkatzea desagerrarazi hitza baino egokiagoa irudituz itzaitzuen.

Zer erakutsiko duzue Arrasateko ikastaroan?

Ematen ditugun ikastaro gehienak umeendako izaten dira. Horiei, txikienei, magia z gain jolasak ere erakusten dizkiegu. Helduei, berriz, magia zer den azalduko diegu: historia, oinarriak, gure teoriak, magia edo *mirari* txikiak zelan egiten ditugun... Taldea osatuko dugu, eta asko praktikatu dugu. Are gehiago, ezinbestekoa izango da ikastaroan irakatsitakoa etxean praktikatuzea. Etxeko lanak egin beharko dituzte, hori ezinbestekoa da magia ondo egiten ikasteko. Magia asko praktikatu behar da, eta ez da batere erraza, gauza asko izan behar dira kontuan efektuak ondo egiteko eta zerbait ezkutatzeko gabiltzan arrastorik ez erakusteko. Egue-netan batuko gara, 18:30etik 21:00etara. Guztira, 20 ordu egingo ditugu, eta uste dugu bada-goela zer ikasi.

Ikastaro horretan irakasle bakarra egon beharrean hain-



AITOR MARCILLA

“Besteak beste, Txan, Eriz, Txispi eta Marsel magoak txandatuko gara, ikastaroa emateko”

“Magia asko praktikatu behar da eta ez da batere erraza, gauza asko zaindu behar dira”

bat mago txandatuko zarete, ezta?

Bai, hala erabaki genuen. Txandatu egingo gara eta honako hauek izango dira irakasleak: Txan, Eriz, Marsel eta Txispi magoak, besteak beste. Azken hori, Txispi, emakumea da. Magiaren alorra ez da horren matxista eta saiatzeko gara beste aldeak erakusten. Nork bere ukitua edo bere teknikak irakatsiko ditu. Aberasgarria izango da oso hainbat irakasle ibiltzea.

Horrelako ikastaroen eskaera handia izaten duzue?

Ez pentsa. Helduendako ez da magia ikasteko eskaintza handirik izaten, baina jendeak uste du zaila dela edo ez dela serioa, eta horregatik ez da askorik saiatzen. Are gehiago, jendeak uste du magiaren alorra oso itxia dela. Xixka elkartearen helburu nagusia ez da irakastea, baina norbaitek magia ikasten jarraitu gura badu, laguntza ematen diegu elkartetik.

Bestalde, jende gehienak, magia ikastaro batera joaten denean, ez daki zehatz-mehatz zer ikasi behar duen.

Zuek zer egiten duzue, magia, ilusionismoa, triki-mailuak?

Magia zer den oso anbigua da. Askotan magia esamoldea txarto erabili izan da. Guk efektua hitza erabiltzen dugu, triki-mailu edo magia beharrean. Eskuko jari hitza ere egokia da (*prestidigitador*): *presti*-k azkarra esan gura du, eta *digito* atzamarrak dira. Hau da, atzamarrak azkar mugitzen dituen. Azti hitza ez dugu gustuko, beste konnotazio batzuk dituelako, ezta ilusionista ere, ilusioak ez direlako benetakoak.

Xixkakook esan ohi dugu magia eta publizitatea antzekoak direla. Egiazko eta gezurrezko aldeak dituen ideia hartu eta batzuk apaindu eta beste batzuk estali egiten ditugula, efektu jakin bat lortzeko.

LABURRAK

Gomendatzen dizut lehiaketa abian izango da apirilaren

Aurten ere, bigarren urtean pasa den urteko sariketa erantzun ona ikusita, Arrasate eta Bergarako gazte dako informazio zerbitzua Gomendatzen dizut sariketa jarri dute abian. Horren burua da oporraldietan gomendioak jasotzea. Hau da aisialdiko irteeretan ikusitako denaren edo erabiltzen diren baliabideen gaineko informazioa batzea.

Edozein gomendio mota baliatu du lehiaketan esku hartzeko: ostatuak, lekualdiak, herriak, museoak, naturaguneak, jatetxeak, deskontxartelak, gazteei zuzendutako ekimenak... Jasotako informazio hori guztia baliagarria izango da gazte bulegoetan erabiltzaileek egingo dituzten bidaiak prestatzeko.

Parte-hartzaile guztia artean nekazari etxe baten lagunenak asteburuko egunaldi bana zozketatuko du. Arrasateko eta Bergarako gazte bulegoetan. Epea apirilaren 22an bukatuko da, eta zozketa apirilaren 28an egingo da. Gomendioak honako helbidera bidali beharko dira: Arrasateko Gazte Bulegoa. Biletorbidia 3. Arrasate. Internet bidez ere parte har daitezke www.arrasate-mondragon.com helbidean.

Musika fusioa eta rock-and-rolla 3.60 aretoan, asteburua

Asteburuan bi kontzertu egingo dituzte 3.60 aretoan. Gure egubakoitza, Radikal Blues taldeak ska, rock eta funk musika nuz osatutako emanaldi egingo du, 23:00etan. Sarriedoan izango da.

Bihar, zapatua, Arrasateko bi taldek joko dute: Chiriboom laukoteak agur-zerbitzua egingo du. Arrasateko Shaggy Dabby And The Troublemakers taldeak gaur izango dute lagun. Bi taldeak rock-and-rolla eta punk musika egiten dute.

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

BOTEPRONTUEN

Andoni Erdabide

HONDA TECNOCAR

XABIER URTZELAI

Kamionerue izendakue, komertzial moduen hasteko aukerie euki eta hori probetie erabaki euen Andonik. Urtebete daroie Arrasaten, eta kotxiak saltzeko ze biher dan preguntau ezker, bergarar horrek argi dauko erantzune: "kotxiak saltzeko inportantie da kotxiak gustetie".

Motorrengaittik ezagune dan markako kotxiak saltzen dozue.

Bai, hamen motorrengaittik da ezagune Honda markie, baiñe munduen, kotxiendako gasoliñazko motor gehixen egitten dauen etxie da Honda. Horrekin batera, Kia markiekin be egitten dou lan.

Ze diferentzia dau horrean marka bixon artien?

Diferentiek die. Honda beste mailla bateko markie da. Honda Accord-a, adibidez, Audi A4 edo BMW 320 kotxiak parien dau, baiñe prezio hobiekin. Kia ez da mailla horretakue, baiñe oso kotxe txukunek die, eta prezioe, barriz, oso oso ona.

Badau kotxe txarrik?

Ez dot uste, fabrikaziñuen asko aurreratu dalako. Oin, kotxe onak edo kotxe hobiek dauketzu, baiñe ez dau kotxe txarrik.

Zeun markak be badoiez aurrera.

Bai, Honda gerueu eta gehixau ikusten da, eta ikusgarrixe da Kia zelana dabillen hazten. Oin arte jentiek pentsetan euen holako kotxe bat erositte zerbitzue ez zala ona izengo, piezak kanpotik ekarri biher ziela, asko itxoin biherko zala... Baiñe bistan dau ez dauela holakorik. Adibidez, Honda zelako markie dan jakittek, beste Honda bat daukonari preguntau besterik ez dau. Motorrak daukon jentiek ondo ezaguketan dau marka hori.

Zein da zeure gustoko kotxie?

Buru apur bat eukiko bageuke, danok erosiko geuke Honda Jazz moduko kotxie. Prezio ona, txikiñe baiñe barrutik leku haundixe-kin, ekonomiekue... Baiñe Accord modelue da neuri gustetan jatena.

1 Formulie jarraiketan



XU.

"Honda zelako markie dan ikusteko, beste Honda bat daukon pertsoniekin berba egittie da onena"

dozu?

Bai, hortxe egon gitzen domeka goixien, karrerie ikusten.

Hondan lan egindde, Buttonen jarraitzaille izen biher.

Sato gustetan jat gehixau. Kas-karretik ez dabil oso ondo, eta ikusi egin biher da zelana ibiltten dan pistan. Alonso be ondo hasi da, emuten dau aurten neurriko kotxie ipiñi dutziela.

Montmelora (Bartzelona) karrerie ikustera inbittauko zaue.

Baitte zera be! Neure jefie inbittauko daue, baiñe neu...

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Kotxekeo karneta.

"Buru apur bat eukiko bageuke, danok erosiko geuke Honda Jazz modelue moduko kotxie"

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?

Egixe esateko, lehen ez jaten Mondrague bape gustetan. Oin, baiñe, hamen lan egitten dotenez eta nobixie be hamengue dauketenez gehixau urtetan dot Mondraguen, eta nahiko ondo dau. Dana dala, ez dau nun aparkau.

Eta ze falta jatzu zeuri?

Dana! Dirue, batez be!!!

Eta, ze dauketzu sobran?

Kiloren bat...

Kapritxo bat.

Fotografixa horretako kotxie (seat 600 gorri bat). Hori da neure kapritxue, baiñe beti dauko zeozer. Saltzen badot, baiñe, nobixiek akabau egingo nau.

NIREBIDAIAHURA / Julia Monge

Birmaniara / 2004ko azaroan

Abenduan astindu zuen tsunami batek Asiako kostaldea, baina ordurako Arrasaten zen Julia. Dena dela, Birmanian egonda, Juliak ez zuen arazorik izango: "Indian, Thailandian eta horrelako lekuetan tsunamiak sarraski handia egin zuen, baina Birmanian ez zen horrelakorik entzun. Kontua da Birmaniako kostaldean ez dagoela ia ezer, eta bertara joatea ez dela batere erraza. Turismo gutxi dago han, eta barrualdean bizi da jendea".

Hilabete egin zuen Juliak Birmanian, eta lurralde hori zergatik aukeratu zuen galde-tu diogu: "Joan aurretik Birmaniaren gaineko hainbat liburu irakurri nituen, eta oso leku interesgarria iruditu zitzaidan. Gobernu militarra dute han, baina hango biztanleen %80k Aung San Suu Kyi emakumezko agintaria aukeratu zuten hauteskundeetan (1988). Emakume hori Aung San-en alaba da, Birmania ingelesaren eskuetatik askatu zuena. Militarrek, baina, hauteskundeak balio gabe utzi eta Aung San Suu Kyi kartzelaratu egin zuten. Bakearen Nobel saria eman zioten (1991), eta militarrek kartzelatik atera behar izan zuten, nazioarteko presioaren eraginez. Orduetik hona bere etxean daukate preso".

Lurralde hartan matxinada istilutsuak izan badira ere, komunikabideetan oihartzun txikia izan da: "Militarren presentzia ez da oso nabarmena, baina ez da komeni hangoekin politika kontuez berba egitea, gobernuak mihiluze asko ditu-eta bere zerbitzura. Hori da kontuan izan behar den gauza bakarra; gainontzean, bisitatzeko moduko lekua da Birmania. Ikustekoa da jendea zein jatorra den, laguntzeko gertu, eta ezere truke. Aljerian eta Marokon egona naiz, eta badakit zer den jendea egun guztia dirua eskatzen ibiltzea. Birmanian ez dago horrelakorik; ez genuen inolako arazorik izan, eta deigarria iruditu zitzaidan lurralde hartako lasaitasuna". Apur bat kokatuta, datoren astean hasiko dugu bidaia.



"Ez da komeni politikaz berba egitea, mihiluze asko dago-eta"

XABIER URTZELAI



Birmanian, bizikleta eta zaldia dira garraiobide erabilienak.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



AISIALDIA/ Abaroa elkarteko dantza ikastaroak

Hitzordu osasungarri eta dibertigarria eguazten goizero, Abaroa elkartearen

IKER BARANDIARAN

Abaroa erretiratuen elkartearen hainbat urte daramate dantza ikastaroak ematen. Natalio Maiztegi hasi zen horretan, eta gaixotu zenean, Marian Barragan eibartarrak ordezkatu zuen. Eguazten goizetan batzen dira eta oso talde giro ona dute.

Irrikan egoten dira herriko hainbat erretiratu eguaztena heltzeko. Izan ere, eguazteneko dantza ikastaroa egiten dute Abaroa erretiratuen elkartearen, 11:30etik 12:30era bitartean. Dagoeneko bost bat urte daramate, Natalio Maiztegi hasi zenetik, eta Maiztegi utzi behar izan zuenean Marian Barraganek hartu zuen lekukoa.

Hainbat dantza mota ikasten dabilta, eta ikasle gehienak hasiera-hasieratik dabilta, hau da, orain dela bost urte ekimena hasi zutenetik. 25 lagun batzen dira astero; horietatik, bost gizon eta gainontzekoak emakumezkoak. Lehen gizonzko gutxiago joaten ziren, baina poliki-poliki latsa galdu eta lagun gehiago batu dira.

KOREOGRAFIK BATEZ ERE

Marian Barragan irakasleak azaldu zigun denetatik irakasten die: merengea, baltsea, ballenatoa, txa-txa-txa, tangoa, pasodobleak, eta abar. "Erretiratuen eskolak gazteenak baino suabeagoak izaten dira, erritmo txikiagoa izaten dute, adina ere kontuan hartu beharreko gauza bat delako", azpimarratu zuen Barraganek. Hala ere, "erretiratuek gazteek bezain beste edo gehiago gozaten dute dantzan", gaineratu zuen.

Gehien lantzen duten alorra koreografiak dira. "Izugarri mai-



Ikustekoa da erretiratuek zelako koreografiak egiten dituzten.

te dituzte koreografiak: *La Bomba*, *El coyote*, *Sopa de caracol*, *La paloma*... Oporretan joaten direnean, Benidormera-edo, gustura asko dantzatzeko dituzte horiek".

"Azken finean, ikastaro horretan ikasten dutena, batez ere, da abesti bat entzutean erritmoan sartzea, mugitzea eta ondo pasatzea. Ez da gutxi, baina hori egiten badakite".

HAINBAT ALDERDI POSITIBO

Ikastaroan dabilta 25 lagun horien artean nagusienak 77 urte ditu eta gazteenak 57 urte, baina

guztiak ematen dute guztia dantzako eskolan.

Marian Barraganen esanetan, dantza oso alderdi positiboak ditu, are gehiago erretiratuen kasuan: "gorputzeko koordinazioa asko lantzen dute, eta hori ezinbestekoa da nagusiendako; odol-zirkulazioa ere hobetzen dute; eta hankak mugitzen dituzte, besteak beste".

Ikastaroko protagonistengana, hau da, erretiratuengana jo dugu, eta oso pozik daude eskola horrekin: "Izugarria da dantzan ikastea, horren bitartez ondo

pasatzen dugu, erlaxatu egiten gara, lagunak egiten ditugu eta ardurez ahaztu egiten gara. Oso garrantzitsua da astero etortzea, ez dut inoiz kale egiten", azaldu zigun ikasleetak batek.

Beste emakumezko batek honako hau esan zigun: "Betidanik izan dut gustuko dantza egitea, baina zoritxarrez oso lanpetuta ibili naiz eta ezin izan dut askorik dantzatu. Orain horretarako denbora luzeagoa daukadanez, ahalik eta dantza gehien ikasten nabil. Gainera, oso talde giro ona daukagu".

Debagoieneko erretiratuak Aldundiarekin haserre daude, eta ez diote lagunduko

I.B.

Astean Aldundiak iragarri du Donostian jokatu dutela Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketa. Horretarako, laguntza eskatu die Gipuzkoako erretiratuei. Baina Debagoieneko erretiratuek ezetza eman diote, euren eskaerei jaramon egin ez dielako.

Astean, Gipuzkoako Foru Aldundiko ahaldu nagusi Joxe Juan Gonzalez de Txabarrik goraiatu egin ditu Gipuzkoako erretiratuak, eta eurengana zuzendu da

laguntza eske. Kontua da abuztuaren bukaeran Donostian jokatu duten Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketa antolatzeko laguntza behar dutela. Txabarriren asmoa da Gipuzkoako erretiratuek hainbat lan egitea: atletendako materiala eta dokumentazioa prestatzea, atsedenguneetan laguntzea, txapelketako denda ofizialean laguntzea, dominak prestatzea... Horretarako, hainbat elkarrizketa egingo ditu erretiratuen ordezkariekin. Ez dakigu Debagoieneko etorriko den, baina dagoeneko eman diote ezetza.

Aurtengo otsailaren 14an, Debagoieneko erretiratuen presidentek gutun bat bidali zion Txabarri, lagunduko ez dutela aditzera emateko. Horrez gainera, otsailaren 17an, mezu bera bidali zioten Aldundiko Gizarte Gaietako arduradun Esther Larrañagari. Hala erabaki zuten aho batez Debagoieneko erretiratuen azkeneko batzarrean. "Aldundiari gure haserrearen ekin-tzekin erakusteko ordua da, bestela ez digute inoiz jaramonik egingo-eta", azpimarratu zuen ibarreko erretiratuen presidente Jose Rivierek.

GARRAIOAREN ARAZOA

Ibarreko erretiratuen haserre aspalditik dator. Izan ere, hementxe erretiratuak dira garraio publikoan deskonturik ez daukaten Gipuzkoako bakarrak. Pesak dauka garraio horren monopolioa, eta ezta Pesak ezta Aldundiak ere ez diote arazo horri erantzunik eman.

Arrazoi horregatik, 2003ko irailaren 9an, ibarreko erretiratuek Aldundira eskaera hori bidali zuten, baina "bi urte geroago, ez dugu inolako erantzunik jaso, eta dagoeneko aspertu gara itxaroteaz".

LABUR

1934an jaiotakoek, urteroko ospakizuna

Aste Santu ostean, apirilaren 2an, 1934an jaiotako gizonzko eta emakumezkoek urteroko ospakizuna egingo dute.

12:30ean meza entzungo dute San Frantzisko elizan. Horren ostean, 14:30ean, Aldape jatetxean bazkaria izango dute.

Ospakizunera joan gura dutenek Bengoa tabernan eman beharko dute izena martxoaren 30a baino lehen. Horrez gain, izena ematerakoan, interesatuek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Zapatuan, batzar orokorra Uribarriko elkartearen

Bihar, zapatua, batzar orokorra egingo dute Uribarriko erretiratuen elkartearen. Horren aurretik, meza entzungo dute Uribarriko elizan, 11:00etan. Batzarra 12:30erako deitu dute, eta hainbat kontu izango dituzte berba: 2004ko balantzea eta memoria, 2005eko aurrekontua eta egingo dituzten ekintzak, eta abar.

Toki Argikoek, batzar orokorra eta Iruñera txangoa

Gaur, egubakoitza, Santa Marinako Toki Argi erretiratuen elkarteak batzar orokorra egin du 16:30ean. Iaz egindakoari gainbegiratu egin diote, eta datozen hilabeteotan egin gura dutena aditzera eman dute. Horrez gain, hila-ren 19an Iruñera joko dute, eta interesatuek eman dezakete izena.

Apirilean hasiko dira berriro berbaldiak egiten

Abaroako, Uribarriko eta Toki Argi erretiratuek aditzera eman digutenez, apirilean hasiko dira berriro berbaldiak egiten. Horietako batzuk osasunaren gainekoak izango dira, eta hizlarietako bat Arrasaten oso ezaguna den Mercedes Acera psikologoa izango da.

Horrez gain, Mercedes Acerak berak oromen talde-rra egiten dihardu Uribarriko elkartearen, eta laster Toki Argi ere egingo du. Talde bitxi hori urtero egiten dute, eta oso harrera ona dauka. Are gehiago, ariketa horiek erretiratuen oso lagungarriak dira, eta mesede handia egiten diete.

EZETZASMATU



Zela deitzen da argazkian ikusten duzuen plazatxoa?
Arrastoa: izenak hegazti batekin du zerikusia.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileron artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Heineken garagardoa
33 cl-ko lata

0,57€ 95 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

GOIZANE ARANArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Goizane!
Galderen erantzun zuzena:
Galiziakoa.

ARRASATEKO HISTORIA

Gantzagako txakur ikaragarriaren istorioa

EUSKALERIAREN YAKINTZA / AZKUE

Arrasaterekin lotutako mitologia kondaira gutxi aurkitu dugu liburuetan; baina hemen inguruan badaude halako gehiago, eta bat edo beste kontatuko dugu. Aramaioko Gantzaga auzoan gertatutako bat ekarri dugu oraingo honetan, euskara berezian idatzita, gainera:

“Aramaionako Gantzagan gorulariak gaberdian, bigiratik (berriketalditik) urtenda, basoan argia ikusi eben. Bat, bera ikusita, ikaraz dar dar asi zan, beste bere ikareari irri egiten eutsela. Apurtxo bat minduta geratu zan au ta esan eutsen:

— ¿Gura dozue zuetario adoretzuena aragiñoze (haraino) ezetz yoan?

Baietz ta ezetz. Ogerleko bat tema egin eben.

Mutil mardo sendokote bat zan ara yoatekoa. Eldu zan ala etzan eldu sinistu eragiteko, angoxe ler (pinu) baten adarra ekarri behar eban.

Mutil azartu (ausart) ori argialdera urreratu zanean txakur eskerga ikaragarri batek bidera urtenda,

— ¿Nora oa, mutil? — zaun-



Bestek beste, Aramaioko Gantzaga auzoan egoten omen zen ahosabaian zintzilik argia zuen txakur ikaragarria.

kaka itandu eutsan.

— Tema bat egin dogu— erantzun eutsan ikara gorritan, aginak agina yoten eutsala.

— ¿Zein dok ire tema ori?

— Argi orixe dagoan lekura eldu baietz. Eldu nazanen sinisgarritzat ler-adar bat eroan

“Eldu zan ala ez zan eldu sinistu eragiteko, angoxe ler (pinu) baten adarra ekarri behar eban”

behar doat.

— Adar ori eroan dagikek; baina lenago iru egia esan behar daustazak.

Mutilak, biri biak bidurrarren auspoketan ebazala (beldurra-rengatik arnasestuka), edu (modu) onetantxe erantzun eutsan:

— Ona emen iru egia. Lene-nengoa: gaurik argiena baino egunik ilunena argiago da.

— Bat.

— Bigarrena: norberaren ama txarra ugazamarik onena baino obago da.

— Bi.

— Irugarrena: ogeta lau urte ta iru ilabete daukadazak eta inoiz etxoat i baino txakur andia-gorik ikusi.

— Iru. Igoidak orain lepora ta gorengo adar-kimatxo bat, txaria bat, artuik.

Adar-kimatxoia lurrera yatsi zanean, txakur eskerga ikaragarriak itz onek esan eutsazan:

— Beste bein ezegik olako temarik egin. Eguna dok ilakotentzat egina, gaba neulakotentzat.

Argia, gorulariak urrundik ikusi eben-argia, beronen aotzarren sabaian dingilizka (zintzilik) eukan txakurrak. Mutil ori etxera yoan, ogean sartu eta etzan inoiz yagi’.

Dirudienez, istorio hori beste leku askotan ere kontatzen da, aldaera batzuekin, baina funtsean, istorio bera da. Esaterako, Tirolen kontatzen dute gauez lanean zebiltzan nekazari batzuei ahots misteriotsu batek zera esan ziela: “Eguna zeurea da, gaua neurea”.

JONE INUNZIAGA

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko martxoaren 11 / 143. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Udalak epaiketa izango du datorren martitzenean

UBANE MADERA

Presoen senideei dirulaguntza ematearren izango du Udalak epaiketa. Udalarekin lotutako bestelako gaien artean, berriz, jakinarazi digute hitzarmena lortu dutela etxagundarrekin.

2003an presoen senideei dirulaguntza ematearren salatu zuten Aramaio Udalak. Eta horrexegatik epaituko dute datorren martitzenean. Epaiketa 11:00etan hasiko da, Gasteizko Auzitegi Probintzialean. Mertxe Mondragon alkateak esan digu defentsaren nondik norakoak zehaztu barik dituztela oraingoz.

ETXAGUENEN, HITZARMENA

Bestelakoan artean, alkateak jakinarazi digu, zailtasunak zailtasun, lortu dutela Etxaguengo auzotarrek nolabaiteko hitzarmena auzo hartan lanak egiteko. "Gutxieneko hitzarmena da; baina horri esker, datorren urtean, 2006an, auzoan azpiegiturak sartzeko proiektua egin ahal izango dugu". Halaber, egin beharreko proiektu eta lan guztiak auzoari begira egingo dituztela ere esan digu, hau da, Udalak egingen duen guztiaren berri eman gogoz diela etxagundarrei.



Presoen gaineko pankartarengatik ere izan zuen epaiketa Udalak.

HAUR HEZKUNTZA ZERBITZUA

Bestalde, Haur Hezkuntza zerbitzuaren gaia ere landu du Udalak azken asteotan. Hain zuzen ere, orain dela bi aste onartu egin zuen eskola ondoan eraikin berria egitea Haur Hezkuntza zerbitzurako. Horren harira alkateak esan digu eraikin berria egitea onartuta dagoen arren, oraindik ezin dutela zehaztu noiz izango den zerbitzu hori erabil-

garri: "Ezin dut datarik eman". Izan ere, eraikin berria egin beharra dute, eta, burokrazia kontuen eraginez, denbora dezente behar izaten dute hala-koetarako. Eskolako ordezkarien nahia da irailerako bukatura egotea, baina hori, seguru aski, ez da posible izango; halaber, uste dute 2005a bukatu baino lehen zerbitzuak abiarazita egon beharko lukeela.

Guztia gertu datorren asteko Korrikarako

U.M.

Korrikako Debagoieneko antolatzaileek esan digutenez, Aramaio eta aramaioarrak gertu daude Korrikari ongi-otorria egiteko. Eguaztenean iritsiko da, 21:15 inguruan, Santa Kruz abadearen plazara.

Berez, 21:30ak da Korrika iristeko ordua, baina Korrika Batzordeak gomendatu du 21:15erako beroketa ariketak eginda egotea,

zain, Aramaiori dagozkion kilometroak egiteko. Edozelan ere, gogora ekarri beharra dago 19:00etan hasiko dela Korrikajai. Herriko kultura talde gehienek parte hartuko dute.

KILOMETRO ETA ERDI SALTZEKO

Bestalde, Korrika Batzordeak jakinarazi digunez, Aramaiori dagozkion bederatzi kilometroetatik 7,5 saltzea lortu dute oraingoz: Udalak, EAJk, hAMAlauk, Orixolek, Txirritolak... erosi dituzte.

Bihar, bertso lehiaketako lehenengo finalerdia

U.M.

Amurrioko katekesi aretoan jokatu dute Arabako Bertsolari Txapelketako lehenengo finalerdia. 19:00etan hasiko da saioa. Lehiakideen artean, Andere Arriolabengoa aramaioarrak parte hartuko du.

Beste bost bertsolari izango ditu aurrez aurre Andere Arriolabengoa; tartean, zazpi bider txapeldun izan den Asier Otamendi bertsolaria. Hala, Irati

Mendigurenak ipinitako gaiekin jokatu beharko du Arriolabengoa ahalik eta puntu gehien egiteko. Izan ere, bi finalerdi izango dira. Guztira, 12 bertsolari lehiatuko dira, eta horietatik sei sailkatuko dira finalerako, finalerdietan puntu gehien lortzen dituztenak.

BIGARREN FINALERDIAN, MANEX

Bigarren finalerdia Legutianon jokatu dute datorren zapatuan. Manex Agirre lehiatuko da han.

HERRITARREN HITZA / Lierni Altuna • Gaztea

Amamak eta aitaitak

Zerbaiti buruz idazteko eskatu didate, gai librean, eta hau nire lehenengo artikulua denez, zuen baime-narekin, amamei buruz idatziko dut.

Ez dakit oso ondo zergatik, baina bereziak dira amamak, eta seguruenik aitaitak ere, baina nik ez dut ezagutu aitaitarik. Gure hezkuntzan, normalean, inguruan edo etxean bertan bizi badira behintzat, partehartze zuzena daukate, baina ez dira gurasoak bezala. Gurasoak txiki-txikitatik diziplina eta morala erakutsi behar izaten digute, "bide onetik", oso erlatiboa da, ibili gaitzen, eta azken finean

gizarteratu gaitzen. Baina amamek ez, amamek moral ikaste hori arintzen digute, leuntzen digute, "hori gaizki dago, ez jo, hori kaka, zelan eskatzen dira gauzak?..."

Ez naiz oso ongi gogoratzen hasierako fase hortaz, baina pentsatzen jarrita, oso itogarria izan behar da haur batentzat. Amamak gizartean duen funtzioa hor ikusten da hobekien, pelikuletako poli bueno y poli malo bikote mitiko horretan, amamek poli



"Amamek poli bueno-ren papela jokatzeko dute"

bueno-ren papela jokatzeko dute.

Gainera, amamak edo aitaitak, normalean behintzat, beraien bizitzako azken fasean, zahartzaroan, ezagutzen ditugu, jada asko bizi izanda daudenean, lasaitasun ikaragarri bizi direnean, ordura arte bizitako

denak utzi dien esperientziaren ikuspegi hori dutenean, eta horrek hezkuntzaren diktaduran tregua bat izaten uzten dio haurrari.

Askotan ez gara kontura-

tzen, baina adin nagusikoek oso funtzio garrantzitsua daukate gure gizartean, eta hauek baztertuz asko galtzen dugu denok. Gainera, baserri giroan gehienbat, amamek idatzita ez dauden gauza asko dakite, beraien heriotzarekin sarri eta desgraziaz desagertzen direnak. Gure herrian ahozko tradizioa izan denez nagusi, askotan, Afrikan esaten den bezala, "zahar bat hiltzea liburutegi bat erretzea bezala da". Orduan gazteok kasu gehiago egin diezaiegun zaharrei eta zaharrek, ezgaitasunaren konplexuak kendu ditzatela gaitetik.

Amama Emiliren omenez.

LABUR

Gasolioarendako laguntzak eskatzeko epea

Luzatu egin dute 2004ko nekazaritzako gasolioaren gain-kostua murrizteko dirulaguntza eskatzeko epea. Orain, martxoaren 15era arte egin daitezke eskaerak. Estatuak litroko 0,06 euroko laguntza emango du, nekazaritzako B gasolio-rako. Hori eskatzeko honako dokumentazioa aurkeztu beharko da: laguntza eskabidea beteta, nortasun agiriaren fotokopia, nekazaritza ustiapeneko txartelaren fotokopia, B gasolioko fakturen originala edo fotokopia eta Eusko Jaurlaritzaren hirugarrenen fitxa.

BOTEPRONTOAN/ Iñaki Mondragon · Argazkilaritza-zalea

“Jendeak bere argazkiak Interneten ipini nahi baditu, ‘www.photoblog.be’ gunean ipin ditzala”

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan delitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

‘Olvídate de mí’ komedia dramatikoak aukeratu dute oraingo honetan. Michael Gondryren zuzendaritzapean, Jim Carrey (*El Show de Truman...*), Elijah Wood (*El Señor de los Anillos...*) eta Kirsten Dunst (*Spiderman...*) aktoreek parte hartzen dute, besteak beste. AEBetan egin dago, 2004an. Film independentea da eta oso harrera ona izan zuen bere originaltasunarengatik. Hain zuzen ere, gidoi originalenaren Oscar saria eman diote eta beste bi izendapen ere izan ditu. 22:30ean hasiko da.

DOMEKAKO ZINEMA

Abenturaz betetako film komikoa emango dute domekan: *Piratas del Caribe*. Johnny Deep aktore protagonistak eta haren lagunek barreak eragiten dituzte film horrekin. 17:00etan hasiko da.

KZGUNEAN, BI ASTE BARRU

Azkenaldian moduan, hilean bi bider zabalduko dute KZGunea. Martxoaren kasuan, hilaren 21ean zabalduko dute berriro, goizez.

Interneten bueltaka Aramaio berba sartuz gero, *Aramaio.com* webgunea azaltzen da, besteak beste. Berba egin izan dugu haren gainean behin edo behin; oraingoan, haren egilearekin berba egingo dugu, Iñaki Mondragonekin. 25 urte ditu eta gaur egun Elektronikako modulu bat ikasten dabil.

Gaztea zara, baina dagoeneko dezente landutako argazkiak egiten dituzu; zela hasi zinen?


Kamera digitalen *boom-a* etorri zenean, bat erosi nuen eta argazkiak atera eta atera hasi nintzen. Lehenagotik ere ateratzen nituen argazkiak, baina ez horrenbeste. Gero, ikusi nuen Interneten jendeak jartzen zituela argazkiak eta gauza bera egin nuen.

Hori noiz izan zen?

Interneten orain dela hiru urte hasi nintzen. Lehen, Udalak ez zuen Aramaioaren gaineko webgunerik. Eta Aramaioaren gaineko webgunea egin nuen. Aramaioaren berri emateko sortu zenuen?

Hasieran bai. Gero, Udalak berea egin zuen eta ni hasi nintzen argazkiak ipintzen. Interneten ipinitako argazkiak baino gehiago izango dituzu nonbait; haiekin zer egiten duzu: lehiaketetara bidali...

Badituzte, baina nahiko txarrak. Lehiaketetara ez naiz aurkeztu. Bueno, Interneteko lehiaketaren batera-edo bai. Baina bestela, ez. Udalak antolatu zuen lehiaketa-



“Kurtzetatik argazki oso polita atera daitekeela uste dut. Anboto ikusten dela aterata”

ra aurkezteko asmoa nuen, baina azkenean, egin nuen argazkia ez nuen atera. **Baina baduzu halakorik egitea buruan ala argazkilaritzaren**

“Reflex kamera digital bat erosteko gogoekin nabil, baina oso garestiak dira”

bidea ez duzu horren argi? Beste barik. Ez dut uste nire argazkiak aurkezteko modukoak direnik. **Hortaz, zuretako argazkilari-**

tza zaletasuna besterik ez da? Bai. Eta orain, gainera, dezente baztertuta dut. Oso argazki gutxi ateratzen ditut. Hasi nintzen dezente ateratzen, baina geroago eta gutxiago ateratzen ditut.

Baina jarraituko duzu, ezta? Webgunearekin?

Jarraituko dut, baina webgunea geroago eta gutxiago eguneratzen dut.

Zein kamera erabiltzen duzu?

Analogikoa ere badut, reflexa, baina baztertu samar. Bi kamera digital ditut, bat txikitxoa eta beste bat handiagoa.

Eta horiekin egiten dituzu ikusi ditugun argazkiak? Seguru ez dutela ordenagailuz eginiko “ukiturik”?

Bai, batzuetan asko igartzen da, kolorez aldatzen direlako.

Bestetan argazkian agertzen diren elementuetako batzuk kendu egin ditut, eta gehienak daude *Photoshop*-ekin landuta.

Argazkiak zela pentsatzen dituzu (gaia, estetika...)?

Interneten argazki mordoia ikusten, batzuen ideia kopiatzen...

Zuk zeuk zela definituko zenuke zure burua?

Ez dakit. Denetik ateratzen dut. Ikusita Interneten jendeak ateratzen dituen argazkiak, uste dut nireak ez direla oso onak.

Besterik esan nahi baduzu...

Jendeari esatea bere argazkiak Interneten ipini nahi baditu, *www.photoblog.be* webgunean ipin ditzala.



Emakumeen aldeko aste arrakastatsua

Jende ugari, emakumeek batez ere, parte hartu du Martxoaren 8a ospatzeko egin dituzten ekitaldietan. Itur-Zuri Emakume Elkarrekin jakinaz digunez, pozik daude ekitaldiek izandako erantzunarekin. Esaterako, Donostiarako txangoan, oletarrak izan ezik (izotzarengatik ezin izan ziren joan) gainerako guztiek parte hartu zutela esan digute: 36 emakume. Martitzeneko hitzaldian, berriz, adin guztietako emakumeek bat egin zuten zinema-aretoan. Atzo, eguna, film emanaldia izan zuten; eta gaur, barikua, bingo-afaria. Dagoeneko 40 emakume eman dute izena gaur gauerako. Honako menua izango dute: menestra, biribilkia onddo saltsan eta kanutilloak. /U.M.

ERRETRATUZAHARRA

Loiolako
basilika
bisitatzen

Emakumeen Nazioarteko Eguna izan dela-eta, geuk ere haiek gogoan izan nahi ditugu eta emakumeak protagonista diren argazki bat aukeratu dugu oraingo astean argitaratzeko.

Ustez, Loiolan dago aterata, hango basilikako atarian, joan den mendeko 50eko hamarkada inguruan.

Honako emakume hauek azaltzen dira, ezkerretik eskumara begiratuta: Gallastegi (Urdixena baserrikoa), Gregoria Guridi (Goiru baserrikoa), Rufina Gallastegi (Oliakoa), Conchita Markaide (Olia baserrikoa) eta Carmen Mondragon (Telleria baserrikoa). Guztiak ere Uribarri auzoko baserriak dira; emakumeak, berriz, elkarren lagunak.

Gure berriemaileak kontatu digu Loiolako basilikara, normalean, gogo-jardunak egitera joaten zirela sasoi hartan. Eta ez oso sarri. Orduko bidaiak ez ziren-eta gaur egungoen moduko errazak izaten. Era berean, gaineratu digu argazkiko emakume-



ak oso dotore daudela jantzita, eta normalean gogo-jardunak egitera joateko ez zutela horren dotore janzteko ohiturarik. Hortaz, argazkiko emakumeak Loiolako basilikara txangoa egitera joan zirela uste dugu, San Inazio egunean-edo, uztailaren amaieran. Izan ere, argazkia atera

zutenean uda zela uste du gure berriemaileak, nahiz eta ez dirudien hala denik, emakumeek eskuetan berokia dutelako. Baina, konturatzen bazarete, era berean, sandaliek in daude jantzita.

Hala, argazkiko beroki berezi horien gainean kontatu digu jantzi

hori "udako berokia" izaten zela. Itxura denez, lehen ohitura zuten negurako beroki bat izateko eta udarako beste bat.

Argazkia eta informazioa: Espe Lizarralde.
Urtea: 50eko hamarkada.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Zaldibarrera
joan eta zelai
zati bat hartu

Horixe egiten zuten sasoi batean Arrasateko alkateek kargu-hartzea egin behar zutenean. 1448ko ekainaren 23an Arrasate erre egin zen, eta Oñatiko kondeak, konpentsazio modura-edo, Zaldibarko inguruko lurak Arrasateko herriari eman zizkion. Hala, Zaldibar Arrasaterena zela erakusteko joaten ziren alkateak hara; aldarrikapena ohitura bilakatu zen.



≈ 1993 Ohitura hori aspaldi galdu zen, baina garai batean, alkateek dokean egiten zuten Zaldibarren, helburu berarekin.



2005 Dagoeneko ez dago aldarrikatu beharrik Zaldibar Arrasate dela. Eta alkate eta zinegotziak Kontekduara joaten dira orain dokean egitera.



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK


Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

igo autobusera



**Astelehenetik
egubakoitzera**

09:00etatik aurrera

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

parte hartu irrastian


Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Astra GTC berria

Fida zaitetz zure begiez



Aurrera zaitetz, egin erreserba eta etekina atera irteera-eskaintzak ekipamenduan dituen pakete bereziaz

CDTI diesel potentzian 150 ZP eta gasolinan 200 ZP, Sport Switch Sistema, IDSplus xasisa, haizetako panoramikoa eta AFL faro moldakorrak.

Informa zaitetz Opel sarean eta ondorengo web orrian: www.astragtc.com.es

Astra GTC gama: kontsumoa (l/km) mistoa 4,8tik 9,3ra. CO₂ emisioa (g/km) 130etik 223ra.

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:
Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA
www.giauto.es

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE
www.giauto.es